

Maiatzaren 18an, astelehenarekin, debatea Andoaingo alkategaiekin



Maider Lainez PSE-EEko Udal hautagaia.



Ana Carrere EH Bilduko Udal hautagaia.



Marijose Izagirre EAJ-PNVko Udal hautagaia.

Datorren astelehenean Basteron hiru hautagai nagusien arteko debatea, arratsaldeko 19:00etan hasita. Ekitaldi irekia izango da.

Aiurri astekariak antolatuta, alkatetzarako aukera gehien dituzten hiru hautagaiak herritarren aurrean hizlari arituko dira bakoitzak bere proposamen politikoa azaltzeko. Atal ezberdinen inguruko debatea izango da, eta ekitaldiaren amaieran herritarrek

Ekitaldia andoaindar guztiei irekia izango da, aretoa bete arte

galderak egiteko aukera izango dute. Debatea euskaraz izango da eta, besteak beste, udaletxe-

ko egoera ekonomikoa, azpiegiturak edota elkarbizitza hizpide izango dituzte. Azalpenak emateko denbora tarte berdina eskainiko zaie hirurei.

Aiurri honetan Andoaingo sei alkategaien elkarrizketak irakurgai daude.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Beñat Arregiren ondarea

Beñat Arregi (1973-2004) Andoaingo gazteak artearen eta sormenaren arteko mundua jorratu zuen bere bizitzan. Haren lanak ikusgai izango dira Argazkialdian.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

Euskalduna taldean historia bizia



Ander Lopez Euskaldunako jokalaria omenaldia egin zioten orain gutxi. Klubaren historia bizia da.

[ANDOAIN, 15. ORRIALDEA]

Zuria, gure erara ikuskizuna Basteron



Urtarrilean arrakasta handiarekin egin zuten *Zuria, gure erara* dantza ikuskizunaren estreinaldia. Urnietako Egape dantza taldeak eta Anabas musika taldeak prestaturiko ikuskizuna berriro ikusteko aukera izango da maiatzaren 22an, Basteroko auditorioan. Ikuskizuna iluntzeko zortzietan hasiko da eta bertaratze-ko sarrerak dagoeneko salgai daude 10 euroren truke, Andoaingo Stop eta Ernaitza liburudendetan eta Aiurri aldizkariaren bulegoan (Arantzibia plaza), eta,

azkenik, Urnietan, Sarobe zentroan eta Kantoi tabernan. Ikuskizuna Juan Ignazio Izutueta idazle eta dantzariaren bizitzan eta ibilbidean oinarritzen da, XVIII-XIX. mendeen artean bizi izan zena.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Urnietako historia

Rosa Ayerbe historialariak liburuaren aurkezpena egin zuen aurreko asteazkenean, Lekaion eskaini zuen hitzaldian.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

#M24 Udal Hauteskundeak

Andoaingo eta Urnietako alkategaiei elkarrizketak
ANDOAIN | Aiurri honetan:

Eh Bildu | PSE-EE | EAJ-PNV | PP | Irabazi | Ganemos

URNIETA | Datorren Aiurri:

EAJ-PNV | Eh Bildu | PSE-EE | Aulki Zuriak

“URNIETA, DE TIERRA A VILLAZGO (1402-1615)” LIBURUAREN AURKEZPEN EKITALDIA

Urnietako historia, liburuan

Rosa Ayerbek *Urnietako historia, de Tierra a Villazgo (1402-1615)* liburu mar-dula aurkeztu zuen joan den asteazkenean. Batik bat, Urnietako historia herri bilakatzerainoko prozesu historikoa kontatzen

du. Aldi berean, liburuak Urnietako etxe eta baserrien historia propioari atal zabala eskaintzen dio. Liburua ekainaren 1etik aurrera jarriko da salgai.

Historian zehar gertatutako suteen ondorioz, Urnietako Udalak ez zeukan Erdi Aroari buruzko agiririk artxibategian. **Mikel Pagola** alkateak adierazi zuen Udalak Rosa Ayerberi jada 1998an eskatu ziola ikerketa lanetan has zedin, gabezia horri amaiera emateko asmoz. Ayerbe etengabeko lanean jardun da harrezkero han eta hemengo artxiboetan, Urnietarekin zerikusia zuten agirien inguruko bilaketa eta transkripzio lan itzela eginez.

Ekimen horren emaitza aurkeztera etorri zen Ayerbe, hain zuzen, joan zen asteazkenean, eta pozik agertu zen Pagola, eskerrak emanez urnietar guztien izenean: "Rosak Udalari eskaini dizkion agiri guzti horiek eta idatzi duen liburua, Urnietako ondarea aberastera datoz; egundoko lan honi esker, Urnietako iraganaren zati handi bat berreskuratu ahal izan da".

Marijo Henriques Udaltzako arduradunak Rosa Ayerberen curriculum akademiko luzea zerrendatu zигun, honek erakutsi ohi duen lan gaitasuna azpimarratuz. Besteak beste, Historian doktorea da Bartzelonako Unibertsitatean, eta 50 liburu baino gehiago idatzi ditu Erdi Aroa gaitzat hartuta; aspaldiko urteetan Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Diputazioaren aktak transkribatze lanetan murgilduta dabil. Henriquesek Ayerberi begira jarri, eta zera esan zion harrituta: "benetan, ez dakit nondik ateratzen duzun denbora hainbeste gauza egiteko".

URNIETARI MAITASUNA

Rosa Ayerbek Urnietako herriari maitasun aitormena eginez ekin zion liburuaren aurkezpenari: "Andoain, Hernani eta Donostia ez ezik, Urnietako historia ere bihotzean daramat. Maitatuko ez banu, ez nioke helduko hainbeste urtetan luzatu zaidan abenturari. Urte mordoan informazioaren atzetik, artxiboz artxibo! Bizitzan behin egiten da eta kitto!".

Berak egindakoa Urnietaren antzerako herrientzat eredugarria izan daitekeela adierazi zuen ondoren: "Erdi Aroko agiririk ez daukaten herriek jakin



Rosa Ayerbe liburuaren aurkezpena egiten ari den, hitzaldia eskaini eta gero.

“Rosak Udalari eskaini dizkion agiri guzti horiek eta idatzi duen liburua, Urnietako ondarea aberastera datoz”

Mikel Pagola alkatea

bezate Udalen aldetik borondatea edukiz gero, berreskuratu dezaketela beren ondare dokumentala; izan ere, ez baitago historiari ez daukan herririk".

PROTOKOLOEN ARTXIBATEGIA

Urnietako herri ez zen garaieran, bertako bizilagunak Donostia, Asteasu eta Hernaniren menpe bizi ziren batez ere. Horietatik, batez ere Hernaniri lotutako agiriak topatu ditu Ayerbek, Oñatiko protokoloen artxibategiak gordetzen dituenak. Protokolo notarialak ageri dira bertan: "testamentuak ez ezik, baita jardura publikoarekin zerikusia duten ekintzak ere (epaileen edo alkateen hautaketak, udal kontuak...). Hots, 1615ean edozein udaletxek egin beharreko kudeaketarekin lotutako materiala".

Valladoliden bi artxibategi miatu ditu. "Simancasen Gaztelako erreinuko agiritegi administratiboa aurki daiteke; exentzioekin harremana dutenak batik bat. Chancillerian, berriz, Epaitegi Gorenekoak biltzen dira. Urnietako herritarrak makinena bat auzitan sartzen ziren eta pozgarria egiten zaigu datu hori, informazio iturri aberatsa iritsi baitzaigu horri esker! Izan ere, bizitzatik ez gatz ez berakatz igarotzen den herriak nekez be-

rreskura dezake bere historia".

Azkenik, Iruñeko elizbarrutiak agiriari atal zabala eskaintzen dio Ayerbek. "San Migel parrokiako herriko patronatuko zen, eta komunitateko kontu ugari elizaren bitartez antolatzen zen, bikarioaren bitartez". Adibidez, agiririk zaharrenekoa topatu ahal izan du. "1502koa da, eta komunitateko agintari izateko antolatzen den hautaketa prozesu guztia azaltzen da bertan".

ALDERDI OROKORRAK

Liburuaren lehenengo atalak Urnietaren ezaugarri orokorrak biltzen ditu (demografia, ogibideak, bizimoduak...). Urnietaren argazki deskriptibo bat egiten saiatu da: "Hiriaren zabal-kunde urbanoa oraindik jasan ez duen komunitate baten aurrean gaude; biztanleriaren zatirik nagusia leku zelaitzuan bizi da, errege bidearen inguruan. Hortik aparte, zenbait baserri sakabanatuta daude. Hidalgoak dira bere biztanleak, eta nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi dira batez ere; aipatzen dira beste zenbait ogibide, hala ere".

Garai horretatik aspektu batek eragin dio arreta bereziki: "gazte asko, zakutoa hartu, eta Indietara edo Terranobara abiatu ziren, edo eta armadan sartu ziren; maiz ez ziren itzuli, gainera. Etxearen eta familiaren zorrak kitatzeko, irtenbide horri heldu behar diote".

KOSTATAKO ASKATASUNA

Bigarren atalak, Urnietako herriko edo unibertsitateak herri gisa eratu arte bizi izan zuen bilakaera historikoa aztertzen

du. Gipuzkoa behin Gaztelako erregearen esku geraturik, honetxek zeukan herri titulua emateko ahalmena, eta 1180an banatu zituen lehenbizikoak, Donostia eta Hondarribia. Kostaldekoak izan ziren lehenbiziko herriak, Tolosa, Segura eta Ordizia barnekoak. Gainerako herriko edo unibertsitateak herrien babesean geratu ziren".

Ezaugarri bereziak ditu Urnietak testuinguru historiko horretan, bakarra izanik antzeko kasua Gipuzkoa osoan. "Bertako biztanleak hiru administrazioetan banatu ziren: Hernani, Donostia eta Asteasu hiriburu duen Aiztondoko Alkatez Nagusia. Bizilagunek, noren jurisdikzioan bizi nahi, libre eduki zuten harekin sinatu ahal izateko kontratua".

Egoera horrek alde onak eta txarrak ekarri zituen biztanleei. Mesedegarriak, herri foruaz gozatzea eta herri baten babesa edukitzea (segurtasun eza bizi zen garaian), Urumeako mendien erabilera... "Baina alde ez-korrak ere gehitzen joan ziren, boteredunaren eta menpekoaren artean gertatu ohi den bezala".

Carlos I. erregeak, gorteko kutxan diru eskasia zuela eta, jurisdikzioak salgai jartzea erabaki zuen 1538tik aurrera. Legazpi izan zen lehena herri titulua erosten, 1608an. Aurrekari hori edukirik, Tolosaldeko 29 herrixkek, Andoain bultzatzaile nagusi zutelarik, bat egin zuten beren burujabetza lortzeko. 1615eko otsailean saldu ziren erregeak titulua. Urnietako ez zen mugimendu horretan sartu, bestelako bidea jarraitu zuen. Hori bai, azpimarratzekoa da burujabe izateko gogoaz azaldu zutela bertako biztanle guztiek, eta bat eginda ekin ziotela.

Ondoren, urtetan bata bestearen atzetik eman ziren gertakizunak azaldu zituen Ayerbek, maiz nobela historikoen pareko gidoi bat kontatzen ariko balitz bezala, intrigaz eta jukutiaz beteriko kontakizuna benetan.

"1608an Asteasuko alkatea hil egin zen, eta erregeak Francisco Borja, Esquilacheko printzeari eman zion har utzitako kargua. Ospe txarreko gizona zen Borja, eta 1.500 dukaten

truke Debako jauntxo bati saldu nahi izan zion. Urnietarrek, printzearen joko horren berri izan bezain pronto, 2.000 dukat eskaini zituzten. Horretan zebiltzala, ordea, erregeak printzea Ameriketara bidali zuen, han kargua eskaini eta gero. Gorteko ogasun kontseiluarekin negoziatzea ikusi zuten egokiena urnietarrek orduan, eta bertako apaiza zen Juan Ikutza izendatu zuten eginkizun horretarako. Horrela, 1615eko uztailaren lauan onartu zituen erregeak burujabetzarako baldintzak. Biztanle bakoitzeko 25 dukat ordaindu beharra ezarri zuen (idi batek balio zezakeen salneurria). Abuztuaren 6an egin ziren hautakundeak eta Antonio Absalon izan zen lehena alkatea Urnietan".

Arazoak ez ziren amaitu alkatea izendatzearekin, alabaina. "Donostiak eta Francisco Borjak kexua agertu zioten erregeari, nork bere arrazoiak emanez". Erregeak, hara zein erabaki hartu zuen: "Urnietari ez zion kendu eman berri zion titulua, baina Donostiako eremukoak izan ziren biztanleei bere horretan jarrai zezaten agindu zion, eta Asteasuko Alkatez Nagusikoak izan zirenei, berriz, itxaron zezatela Francisco Borja hil arte. Hortaz, praktikan, soilik Hernaniren menpe bizi izan ziren biztanleak lortu zuten eskubide osoko urnietartasuna".

Hogeita hamahiru urte igaro behar izan zuten egun deseatu hori iritsi zedin: hain zuzen, "Borja 1648an hil zen eta Donostiak berehala eman zuen amore".

URNIETAKO ETXE ETA FAMILIEN HISTORIA

Urnietako etxe eta baserrien historiek hartzen dute liburuaren zatirik nagusia. "Arakututako artxiboetan protokolizatu agertu diren etxe guztien inguruko agiriak jaso ditut. Horietan, Urnietako hainbat familiei buruzko informazioa agertzen da, batez ere, zeintzuk diren ohiturak etxearen eta etxe-koen oroimena belaunaldiz belaunaldi mantentzeko".

Saroben arrakasta handiz taularatu eta gero, saio berria

“Zuria” dantza ikuskizuna Basteron, maiatzaren 22an

Zuria dantza ikuskizuna Urnietako Egape dantza taldeak eta Anabas musika taldeak prestaturiko ikuskizuna da, Urnietan bertan urtarrean aurkeztu zutena arrakasta handiz. Ikuskizuna Juan Ignazio Iztueta idazle eta dantzariari buruzkoa da, 1767. urtean Zaldibian jaio, artzain herri batean, eta 1845.ean jaioterrian bertan hil zena. Iztueta aldaketa garaian bizi izan zen: ilustrazioa, frantsesadak, eta lehen karlistaldia bertatik bertara ezagutu eta bizi izan zituen. Zuria ezinez zen ezaguna eta horixe da, hain zuzen ere, ikuskizunak hartu duen izena.

Iztueta, dantzari fina, pentsakeraz aurrerazale eta liberala zen baina bertako usadio eta folklorearen babesle sutsua, bizitza oso gorabeheratsua izan zuen eta bere bi idazlan nagusiek arrasto sakona utzi zuten bere garaiko euskaldunen artean eta baita ondorengo belaunaldien artean ere: batetik 1824. urtean argitara emandako Gipuzkoako dantzen bilduma (Guipuzcoaco dantza gogangarrien condaira...), eskuliburu zurruntzat erabili dena urte luzez, egileak beste ororen gainetik gauzak bere erara egitea, aske izatea, maite zuen arren. Bigarrena, Guipuzcoaco provinciararen condaira edo historia, lurraldeko historia, gertakari, usadio eta ateraldi ugariz hornituriko lana, Iztueta hil ondoren argitaratua.

Egape dantza taldeak eta Anabasa musika taldeak Zu-



Urnietan taularatu eta gero Andoaingo eskainiko dute, hilaren 22an.

riaren izatea, bere obra eta haren garaiko Gipuzkoa ezagutzera emateko sortu dute ikuskizuna, Iztueta gaurko gipuzkoarrei hurbiltzearen, eta horretan bat egin du orain euskal literaturazaleen 111 Akademiak, euskal literaturak XIX. mendean izan zuen idazle oparo honi buruzko ikuskizuna berriro ere oholtzara ekarriz. Izan ere, 111 Akademiak maiatzaren 22ko emanaldia joan den abenduan zendu zen Mari Juli Azkue asteasuarraren omenez antolatu du, hari eskainiko dio, Mari Juli Azkue 111 Akademiaren sortzaile eta kide izan baitzen, Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren sortzaile eta lehendakariorde izatearekin batera ia 25 urtez.

Juan Ignazio Iztuetak gauzak bere erara egitea gogoko zuen, neurri batean behinik behin. Mari Juli, berriz, munduari begira bizi zen, ikuspegi zabalare-

kin, jakinminez noranahiko. Askatasuna maite zuen eta jendeak bizitza, kultura, askatasunez bizi zezan, munduari eta aurrerabideari irekia, baina belaez belaeun jasotako ondasunean biziz, haiek galtzen utzi gabe.

Dantza ikuskizuna Edu Murrumendiaren zuzendua da, Luis Mari Zalduak eta Mikel Agirregomezkortak idatziriko gidoiaren arabera. Antzezen eta eszena zuzendaritza ere Agirregomezkortarena da eta musikaren atala, berriz, Antton Jauregik zuzendu du.

SARRERAK SALGAI

Ikuskizuna iluntzeko zortzietan hasiko da eta bertaratzeko sarrerak dagoeneko salgai daude 10 euroren truke, Andoaingo Stop eta Enaitza liburutegietan eta Aiurri aldizkariaren bulegoan (Arantzibia plaza), eta, azkenik, Urnietan, Sarobe zentroan eta Kantoi tabernan.

Denda Berrikoen egonaldia Asturias aldean



Hainbat partaide Asturias aldeko sagardotegi baten aurrealdean.

Denda Berri elkarteak maiatza etxetik kanpo hasi zuten. Asturias aldean, ze-

hazki. Asteburu ederra pasa zutela adieraziz, argazki bat bidali dute Aiurrira.

Igande honetan Antonio Gabirondo Memoriala

Igande honetan Antonio Gabirondo Memorialaren edizio berria izango da Arkalen.

Santa Krutz elkarteak antolatuta, 09:00etatik 13:00ak bitarte izango da.

Elikadura jasangarria aztergai izan zuten ikasleek

Maiatzaren 7an elikadura jasangarria hizpide izan zuten Eskola Agenda 21 egitasmoaren barruan parte hartu duten ikasleek, pleno aretoan Udal ordezkariarekin batera egindako ez ohiko batzarrean. Herri ikastetxeetako lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleen ordezkarien bilkura izan zen. Agenda 21 ekimenaren bitartez lehenik eta behin ikastetxe bakoitzeko, herriko eta inguruko elikadura jasangarria aztertu dute. Azterketa horretatik elikaduraren garrantziaz jabetu dira.

Ikasleen jarrera desegokien aurrean hainbat konpromiso hartu dituzte. Hala nola, “jaten dugunari arreta gehiago jartzea, denda txikietan eta azokan erosi eta ontziratutako produktuak kontsumitzea”, beste batzuren artean.

Udalari eskaera zehatzak egiteko aukera baliatu zuten: baserriarrei laguntza gehiago eskaintzea, herriko azokari bultzada bat ematea, herri baratzeak egitea, etab. Alkatea eta hainbat zinegotzi bertan ziren, eta ikasleek egindako lana txalotu zuten.

HERRITARROK

garaile!

EMAN BOTOA

ehbildu

Ekitaldia Andoaingo

Maiatzak 16 larunbata
14:30etan BAZKARI HERRIKOIA
18:00etan EKITALDI POLITIKOA




ARGAZKIALDIA 2015

Beñat Arregiren artista sena, Argazkialdian ikusgai izango da

Beñat Arregi (1973-2004) Andoaingo gazteak artearen eta sormenaren arteko mundua jorratu zuen bere bizitzan. Osatu zituen artelan ugarietatik, bakan batzuk jarriko dituzte ikusgai Basteron Argaz-

kialdia jaialdiaren barruan. Bere irakasle izan zuen Eduardo Arresegyor eta bere anai Gartxot Arregi argazkilaria ibili dira Beñaten sormen lanak biltzen eta aztertzen.

Bere artelanen bilketan aritu zarete, Gartxot, Argazkialdirako...

Gartxot Arregi: Batzen joan gara han hemen barreiatuta zeuzkan sormen lanak, artelanak, argazkiak, muntaiak... Etxeko biltegian topatu ditugu batzuk, familiak etxean zeuzkan beste batzuk. Artelanez gain, izugarritzko argazki artxiboa topatu dugu, milaka irudiez eta gaiez osatutakoa (Andoaingo bazterrak, Leitzarango bailara, futbola, autoerretatuak, Olinpiapopularrak...).

Eta ondoren, horietako zenbait artelanekin erakusketa osatzea erabaki duzue...

G.A.: Aitortu behar dut, hasiera batean, Eduardok erakusketa-aren ideia luzatu zidanean, ez neukala gauza oso garbi. Akaso neure burua babesteko erreakzioa izan zitekeen, Beñat anaia eta adiskide gisa ikusten bainuen, eta egoera horretan faktore emozionalak indar handia dauka. Gainera, ezinegona eragiten zidan gure artean ez dagoen pertsona baten lanekin bazterrak nahasten ibiltze horrek.

Nolanahi ere, Eduardo eta biok bere obra biltzen eta aztertzen hasi ginenean, arraioa!, berak utzitakoak indar artistiko handia zeukala ohartu ginen. Horrexegatik animatu gara zazpi bat artelan erakusgai jartzera. Bere sormen munduaren ideia bat hartzeko baliagarri izan daitezkeelakoan.

Zu, Eduardo, bere irakaslea izan zinen...

Eduardo Arresegyor: Hamazazpi urte bete zituen arte gure sormen tailerrean aritu zen, eta gero unibertsitatean Arte Ederretako ikasketak egin zituen. Alde horretatik, bere eboluzioa begitatzeko aukera eduki nuen, gazte-gaztetatik nola joan zen hazten sortzaile gisa. Oker ez banago, bakarka erakusketa bat egin zuen Urigainen, eta gainerakoan, modu ko-



Gartxot Arregi eta Eduardo Arresegyor, Beñat Arregik bere irudiarekin egindako "Transformer" artelaneko argazkien ondoan.

"Ikus-entzunezkoak eta batik bat argazkiak erakartzen zuen. Argazkia da bere obra guztiaren ardatza"

Eduardo Arresegyor

lektiboan, beste artistekin erakutsi izan zituen artelanak han eta hemen.

Bere lanetan argi ikusten da, gure tailerrean lehenbizi eta unibertsitatean gero, plastikarako formazioa jaso zuela, eta hortik aurrera, bere sormen senari askatasuna emanez, esperimentazioaren bidetik abiatu zela, etengabeko bilaketa batean murgildu zela.

Irudia eta argazkia lantzen zituen batik bat...

E.A.: Ikus-entzunezkoak eta batik bat argazkiak erakartzen zion. Argazkia da bere obra guztiaren ardatza, bere sormena batzen duen tresna. Azpimarragarria da bere garaian argazkigintzaren diziplinan batera ohikoa ez zen bidetik jotzen zuela: argazkiaren ikuspegi heterodoxoa zeukan, argazkiaren

eremuan nagusi diren estereotipoetatik urrundu nahi zuen; eta horrexegatik, argazkia bera pinturarekin eta beste adierazpide plastikoekin batzeko joera zeukan. Ez dugu ahaztu behar argazkia alde batetik eta plastika bestetik jorratzea zela normalena berak bizitu izan zuen garaian. Guzti horregatik, esan dezakegu artista bide urratzailea izan zela Beñat.

G.A.: Argazkilaria naizen aldetik, txundituta uzten nau ikus-teak nola ez daukan argazki bat ere koadro batera eramana besterik gabe. Irudia den edozerekin joko artistikoa egiten saia-

tzen da; artista senak agintzen dion moduan aurkezten ditu. Kontzeptualki, zentzua eta edukia ematen dio argazkiari. Adibidez, badauka collage moduko artelan zoragarri bat, argazki sorta elkarrekin hariz josita. Bada, ezezaguna egiten zaigu teknika hori. Basteron ikusi ahal izango da.

Esan al daiteke askori ezustekoa eragingo diola Beñat Arregiren alderdi sortzaile horrek?

E.A.: Ez izan zalantzarik. Nahiz eta gazterik joan gure artetik eta ez jakin sortzaile gisa zenbat eman zezakeen urteetan aurre-

Lau argazkilariren lanak bilduko dira Basteroko erakusketa gelan, maiatzaren 16tik ekainaren 14ra: Iñigo Royo, Lobo Altuna, Nagore Legarreta eta Beñat Arregi

ra, egin zuen guztiagatik, daki-guna da Andoaingo artista on baten gisa jo beharko genukeela. Argazkialdia-ko antolatzaile eta Trentxiki argazki taldeko ki-deetako batzuk diren batzuk, Beñat ezagutu ez zutenak, harrituta geratu dira bere obra ikusi dutenean. Hortaz, edonori aholkatuko nioke Basteroko erakusketa gelara azal dadin.

Argazkien eta irudien bonbardaketa bizi dugun aro honetan Beñaten erakusketa kontrapuntu polita izan daitekeela iruditzen zait. Azken denboratan, gizateriaren historian sekula ez bezainbeste argazki ateratu da. Automatikoa jarri, eta kamera berak den-dena egiten duela ematen du. Bada, Beñatek bestelako filosofia aldarrikatzen du: artisauaren pare jartzea argazkia egitearen jarduna, eskulanglearen pare, zeinak argazkiari teknika eta tratamendu jakin bat aplikatzen dion.

Argazki mordoia topatu duzuela esan duzu lehen, Gartxot. Horiekin beste zerbaite egiteko asmo-rik bai?

G.A.: 80 eta 90eko hamarkadetan Andoain, andoaindarrak eta horien kultur eta kale bizitza islatuta geratzen dira horietan. Oraingoz, zuri-beltzezko sei-zazpi argazki hartu, formatu handira pasa, eta Argazkialdiak irauten duen asteetan kaletan ipintzeko asmoa daukat. Denborarekin eta espazioarekin jokatu nahi dut. Alegia, argazkia non eta zein egoeratan egin zuen Beñatek, ba hantxe ipiniko ditugu: futbol zelaia zuen Etxeberrieta auzoa, Olinpiapopularrak, Santa Krutz jaietako bizikleta lasterketa...

Argazkialdia'15 abiatu da



Maiatzaren 16tik ekainaren 14ra Argazkialdiaren edizio berria ospatuko da Andoainen. Mendeurrenari keinu eginez, Gipuzkoarrak 400 ekimena iragarri dute: "400 urte betetzen ditugu, eta ospakizun nagusiarekin egin ohi dugun bezala, lagun artean ospatu nahi dugu. Tamaina handiko argazkiez osatutako


erakusketa honek 400 urte betetzen dituzten udalerrri gipuzkoarrek denborarekin izan duten bilakaera erakutsiko digu". Irudi horiek Gokoplazan eta Zumea plazan ikusgai izango dira, eta baita Basteron, Anbroxia Olabiden, herriko hainbat tabernetan. Kale eta plazetako lorontzietan ere.



EH Bildu
Ana Carrere



Maider Lainez
PSE-EE



Marijose Izaguirre
EAJ-PNV



Asun Guerra
PP



Jorge Mourinho
Irabazi



Olga Hernandez
Ganemos

AIURRI [Gehigarri berezia]



Udal Hauteskundeak 2015

#M24 Andoain

Sei hautagaitza lehian

Asun Guerra, PPko hautagaia

Kanpainan gaude, zein da gehien errepikatzeko asmoa duzun esaldi, eslogan edo mezua?

Asun Guerra. Bestelako Andoain posible da. Lehentasuna pertsonak dira.

Alkatea izango bazina buruan dituzun ideia zehatzetatik martxan jarriko zenukeen bat aukeratu.

A.G. Lehenik eta behin, diru kontuen ikuskapena egitea. Eta hortik aurrera lehentasunak ezarri eta inbertsioak egiteari ekin.

Udalaren egoera ekonomiko zailak baldintzatu du agintaldi osoa. Bideratzen doala dirudi. Zein da zuen analisia? Zure alderdiak nola hobetuko luke hori?

A.G. Udal gobernu taldeak krisi garaian ez du kudeaketan asmatu, horixe da nire analisia. Irtenbidea diru inbertsioan dago, lehentasunezko diren horietan. Alegia, herritarren gan. Utz ditzagun gainditutako ideologietan oinarrituriko alferrikako gastuak alde batera.

Enplegua, industria, zerbitzuak... Hain beharrezkoa den eskualdeko garapen agentziak abiadura eta indarra hartuko al ditu agintaldi berrian?

A.G. Esan ohi den bezala, eskualde mailako garapen agentzia atzorako zen. Baina gobernu taldeak ez du garapenean sinesten eta azken orduan korrika eta presaka egin duena aurreikuspen faltsuak sortzea da.

Kea saltzen ari zaizkie andoaindarrei, euren lagunentzat txiringito berria sortuz.



Azken bi agintaldietan zinegotzi lanetan aritu da Andoainen, aurretik Urnietan.

Gizarte Zerbitzuak alderdi politiko ezberdinek kudeatu dituzte azken hamarkadan. Adostasun maila handiena duen alorra al da?

A.G. Sentsibilitate handien sortzen duen atala da, logikoa dena bestalde. Bertatik arrisku egoeratik gertuen daudenei laguntza ematen zaie. Bereziki garai hauetan, beharrak hain handiak izanik alferrik direla alderdien arteko eztabaida antzuak. Egoera, hala ere, nabarmen hobetu daiteke.

Udaleko zein beste alor edo atalak kezkatzen zaitu gehien?

A.G. Denek dute garrantzia, modu batera edo bestera denak elkar lotuta daudelako. Enpleguak aberastasuna sortzen du eta kontsumoa handitu, eta baliabide horiek ezinbestekoak dira udalerriarentzat. Horri esker gazteei bizi egitasmoa eskaintzen zaie, aisialdia sustatzen da, kultura, eta era berean kalitate hobeko enplegua izatea ahalbidetzen da.

Zergatik ez da egon, zure ikuspegitik, azken lau urteetan akordioak lortzeko adostasun politiko handiagorik?

A.G. Agintaldi honetan etengabe errepikatu dut hori. Gobernu taldeak ez du oposizioko alderdiekin akordiorik lortu nahi izan, ez dutelako akordioa bilatzen jakin edota negoziatu nahi izan ez dutelako. Azkenean errazagoa zaie oposizioari errua botatzea, euren gaitasun falta aitortzea baino.

Demagun kaletik zoazela eta “denak igualak zarete!” aurpegiatzen dizutela. Zer erantzun zenuke?

A.G. Aldagai askoren arabera erantzun bat edo bestea eman nioke. Ikusi behar da nork esaten duen hori, nola, zenbaterainoko oldarkortasunarekin, elkarrizketa bati hasiera emateko gogoia baduen edo ez...

Saiatuko nintzateke eurei esaten oker daudela, eta politikari askok politikan urte asko daramagula herritarrekin eta herritarrentzat lan eginez –neure bizitza jokatzu, gainera–.

Nor zara? Nola definituko zenuke zure burua? Zertaz zaude bereziki harro? Eta ahuldaderik ba al duzu?

A.G. Medikua naiz ogibidez, eta denbora asko eskaintzen diot politikari eta herritarrari. Nire lanbideaz harro nago, jendearekin enpatizatzekeo dudana gaitasunarekin ere bai. Berdin dio zein ideia dituen. Pertsonari entzun egin behar zaio nahiz eta bere ideiekin bat etorri ez. Entzuteak norbera aberasten duelako.

Nire ahultasuna: oldarkortasuna beharbada, eta pazientzia falta.

Zein izan da zure lana agintaldi honetan?

A.G. Oposizioan gobernu taldeari kontrol lana egin diot. Nire lana behar bezala egiteko oztopo asko jarri didate, hori esan beharra dago. Herria hobetzeko ekimen ezberdinak bideratu ditugu, baina Bilduren gobernuak ez die jaramonik egin nahi izan.

MOTZEAN

Andoaingo pertsonaia historikoa:

MODESTO HUIZI.

“Neu bezala medikua zen eta bere ibilbidea oso interesgarria da”.

Andoaingo txoko bat:

LEITZARAN HARANA.

Lasaitasun handia eragiten dit. Gainera, intriga eta misteriorako giroa nabaritzen diot.

Auzoetako festen artean bat aukeratu:

SANTAKRUTZAK.

Udal korporazioko kide naizenez, gehien murgiltzen garen jaiak direlako.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

Ez nuke bat bera ere nabarmenduko, ez litzateke bidezkoa. Bakoitzak bere eremua eta bere merituak egin ditu.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat:

ANDONI BALTASAR, MAIDER LAINEZ.

Harreman ona eduki dut EAJko eta PSEko bozeramaileekin.

PP alderdiaren ospea inoiz baino txarragoa izanik, zertan eragin diezazuke?

A.G. Argi dago ustelkeria kasuak eztabaidaren erdigunean daudela une hauetan, baina alderdi guztiei eragiten die. Baita EAJ-PNVri eta Bilduri ere, nahiz eta hedabideek ez duten horri buruz hitz egiten.

Udal hauteskundeetan pertsonarengan erreparatu behar da gehiago, eta ez nahastu pertsona zehatz batzuk izan ditzaketen jokabide nazkagarriekin.

Zergatik eman behar zaizu zuri botoa, eta ez besteei?

A.G. Udalerri honi alternatiba sinesgarria eskaintzen dion alderdi bakarra nik ordezkatzeko dudana da. Benetako aldaketa eskaintzen du, eta alderdien siglen gainetik udalerri honetan sinesten du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN, ELKARRIZKETAK ALKATEGAIEI

Mari Jose Izagirre, EAJ-PNVko hautagaia

Kanpainan gaude, zein da gehien errepikatzeko asmoa duzun esaldi, eslogan edo mezua?

Mari Jose Izagirre: Gehien errepikatuko dugun eslogana “Bestelako Andoain” izango da. Izan ere, Andoain geldirik dagoela ikusten dugu, eta horrek atzean geratzeko arriskua duela esan nahi du.

Alkatea izango bazina buruan dituzun ideiei zehatzetatik martxan jarriko zenukeen bat aukeratu.

M.J.I.: Gure proiektuak hiru lerro estrategiko lantzen ditu; gizarte politika, politika ekonomikoa eta Andoain bizia. Gizarte politikan, andoaindarrei bizi kalitate duina bermatu nahi diegu, eta horretarako, ekonomikoki indartsu egon behar dugu. Enplegua sortu behar dugu, industriaren ondoan egon behar dugu, komertzioa berpiztu behar da eta turismoa landu. Horrela, aberastasuna sortuko da eta bizi kalitatea bermatzeko gai izango gara, Andoainengan eragina izanez. Beraz, gure lehentasunak pertsonak, ekonomia eta bizitza izango dira.

Udalaren egoera ekonomiko zailak baldintzatu du agintaldi osoa. Bideratzen doala dirudi. Zein da zuen analisia? Zure alderdiak nola hobetuko luke hori?

M.J.I.: Nire ustez, egoera ez da hori, egoera ez baita hobetu EH Bilduk saldu nahi duen moduan. Egia da agintaldi osoan ekonomikoki egoera txarra igaro duela Udalak eta, andoaindarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak eta bizi-kalitatea bermatuta ikusi direla.

2012ko amaieran, proposamen bat egin genion Bilduri 4 urteetan zehar egoera ekonomikoari buelta emateko. Neurri zehatz batzuk aztertu genituen: inbertsioetarako ahalmena, zaborrak, ura... Proposamen hori oraindik posible dela sinesten dugunez, horixe jarri nahiko genuke martxan.

Enplegua, industria, zerbitzuak... Hain beharrezkoa den eskualdeko garapen agentziak abiadura eta indarra hartuko al ditu agintaldi berrian?

M.J.I.: Lehenbizi, euskaldek



Azken bi agintaldietan zinegotzi lanetan aritu ondoren, alkategai da orain.

agentzia osatu behar da, oraindik ez baita osatu. EH Bilduk hori saltzen badu ere, legegaldi osoan ez dira eskualdeko agentzia osatzeko gai izan. Beraien proposamenak teknikoki eta juridikoki aurkako txostenak zituen, egiaztatu gabekoa baitzen. Agentzia osatzea zen beraien asmoa, zertarako eta nola jakin gabe.

Horren emaitza, agentzia ez osatzea izan da. Hiru herrietan soilik onartu da eta gainera, beraien proposamenean Andoain kanpoan geratzen zen.

Gizarte zerbitzuak alderdi politiko ezberdinek kudeatu dituzte azken hamarkadan. Adostasun maila handiena duen alorra al da?

M.J.I.: Gizarte Zerbitzuetako langileek egiten duten lana azpimarratzekoa eta txalotzekoa da. Gaur egun, kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dira Andoainen. Dena den, egoera aldatzen ari da; batetik, krisi ekonomikoarengatik familia asko oso gaizki pasatzen ari da, eta bestetik, gizarte zahartzen ari da eta gero eta heldu gehiago dago menpekotasun egoeran. Egoera aldatzen doan heinean, behar berriak sortzen ari dira.

Horregatik, gure erronka behar horiei erantzuna ematea izango da.

Udaleko zein beste alor edo atalak kezkatzen zaitu gehien?

M.J.I.: Enpleguak. Jende asko dago hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituen eta horregatik, enplegua sortuko dugu. Hainbat neurri hartuko ditugu: zenbait baldintza jarriko ditugu andoaindarrek lehentasuna izan dezaten, gazteek lehen lanerako aukera izateko beka sistema bat ezarriko dugu, langabezia luzaioan egon direnentzat lanera bueltatzea landuko dugu, emakumeak lanera sartzeko ahaleginak egin eta lagunduko diegu...

Zergatik ez da egon, zure ikuspegitik, azken lau urteetan akordioak lortzeko adostasun politiko handiagorik?

M.J.I.: EH Bilduk ez du herriarrentzat lan egin, beraien jendearentzat baizik. Erabaki bat hartu behar izan denean, ekarpenak ez zituzten onartzen beraien iritzia lortzen ez bazen. Horrela lan egitea oso zaila da. Beraien ideiak aurrera eramanez dituzte, baina hor

tik aurrera, ez dute gehiago egin. Horren adibide dira 2012ko aurrekontuak. Aurrekontu horietan, zenbait ekarpen egin genuen, abstenitu egin ginen. Aurrekontua aurrera ateratu zen, baina ekarpenetatik bat bera ere ez zuten bete. Negoziaketan sartu garenetan, talka egin eta beraiek nahi dutena egin izan dute; inposaketara joz.

Demagun kaletik zoazela eta “denak igualak zarete!” aurpegiatzen dizutela. Zer erantzun zenuke?

M.J.I.: Badakit gaur egun politikarekiko mesfidantza asko dagoela eta jendeak ez duela politikoengan sinesten. Konfiantza falta horri buelta eman behar zaio; lana eginez, herriarrak errespetatuz, eta azkenik, entzunez eta erantzunez.

Nor zara? Nola definitiko zenuke zure burua? Zertaz zaude bereziki harro? Ahuldaderik baduzu?

M.J.I.: 45 urteko andoaindarra naiz, ezkondua eta 19 eta 15 urteko bi semearen ama. Jendarekin egotea oso gogoko dut; entzutea, egotea, kalean ibiltzea... Familia giroa zaintzea eta lantzea ere oso gustuko dut. Ahultasunei dagokienez, zerbaitean jartzen naizenean oso tematia izan naiteke. Sinesten dudanean, aurrera jotzen dut etengabe eta hori agian nire aurka etor daiteke.

Zein izan da zure lana agintaldi honetan?

M.J.I.: Agintaldi honetan oposizioan egon gara eta lan hori ez da ikusten; oso zaila da jendeari erakustea. Gure lana oposizio eraginkor eta konstruktiboa egitea izan da, kalean topatu ditugun edota jendeak esan dizkigun arazoei irtenbidea emanez. Batzuetan lortu dugu aurrera eramatea, eta beste batzuetan ez.

Gipuzkoan bi alderdi abertzaleen artean iraganean EAJren kudeaketaren inguruko ika-mika sortu da. Albiste horiek zuengan eragina izango al dute?

M.J.I.: Ez. EAJk urteen poderioz herrigintzan lan asko egin duela erakutsi baitu. Hartuta

MOTZEAN

Andoaingo pertsonaia historikoa:

AITA LARRAMENDI

Euskararen aldeko lan zorrotza egin zuen. Politikan eta kulturgintzan ere ekarpen baliogarriak egin zituen.

Andoaingo txoko bat:

OTIETA ETA ESPIGOIA

Bata naturan murgilduta dago, eta ni oso zalea naiz. Bestea, Oria eta Leitzaran ibaiek bat egiten duten tokia. Iluntzean hor argi berezi bat sortzen da, herriak beste ikuspegi bat hartzen du.

Auzoetako festen artean bat aukeratu:

Denak dira garrantzitsuak.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

CARITAS

Gizarte indibidualistago batean Caritasek elkartasun, kooperazioa eta elkarlana lantzen ditu.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat:

Erreferenteak alderdi barruan ditut. Udaletxean guzkiekin harreman ona dut.

ko erabaki estrategikoetan asmatu egin duela argi utzi du. Orain ezker abertzaleak EAJ kakaztu nahi du, baina nik konfiantza osoa daukat nire ki-deengan. Denborak erakutsiko die gezurretan ari direla eta ez dabiltzala ondo.

Zergatik eman behar zaizu botoa zuri, eta ez besteei?

M.J.I.: Andoain geldirik dago eta eboluzionatu egin behar dugu. Gure egitasmoak hiru lerro estrategiko biltzen ditu eta horiek osatzeko ate joka ibili gara, eragileekin eta herriarrek elkartuz. Partekatutako proiektua da, atzean lan asko duena. Honela, beste Andoain bat erakiko dugu; herriarren partaidea sustatuko dugu, iritzia entzunez eta aurrera eramanez. Gure erreferenteak pertsonak dira, andoaindarrak. Horregatik, gu bozkatu behar gaituzte.

Olga Hernandez, Ganemoseko hautagaia

Nondik sortzen da Ganemos Andoain hautagaitza?

Olga Hernandez. Hasiera batean 2011n Ezker Batua-Berdeak alderdiarekin eten genuen bidea berrekin nahi genuen. Gogoan izan behar da hiru boto-rengatik ez genuela Sergio Barreiro 17 zinegotziren artean sartu.

Barne prozesu bat egon da, eta Ezker Batua-Berdeak zenak Ezkerra-Berdeak izena du orain. Udal hauteskundeengan pentsatzen hasi ginenean harremanetan jarri ginen haiekin. Aukera ezberdinak aztertzen ibili ginen arren, azkenean Ganemos marka erabiltzea proposatu ziguten eta horri ekin genion. Sentsibiltate ezberdinak hurbiltzen dira gure baitan.

Zer eskaini nahi diozue gizateari?

O.H. Ezker Batuko militante eta botuemaile ohia naiz. Ezker Batuko zatiketa hasi zenean nire ama hiltzen ari zen. Orduan ez nengoen eztabaida horietarako.

Bestalde, betikoa da ezker-tiarren arteko zatiketa. Beti zaituta gaude. Nire kasuan sigla ez da garantzitsuena, sentsibiltate ezberdinak erakarri nahi ditugu. Nik uste gaur egungo egoerarekin nahiko aspertuta gaudela denak ere. Baita PPko botuemaile klasikoa ere. Kokoteraino daude aginte postuetan dauden hainbat alderdikiderek.

Proposamen politikoa lantzen ari gara Udal hauteskundeetarako, herritarrek uler dezaketen hizkera erabiliz. Aha-



Olga Hernandez andoaindarra, Ganemos Andoain hautes-zerrendako kidea.

lik eta zehatzen jokatu-ko du. Agerikoa da esango dudana, baina ordezkari politikoe-herriarren esanetara egon behar dute.

Egitura berri-berria da zuena, nola pretsatzen da kanpaina bat horrelako egoeran?

O.H. Ia dirurik gabeko kanpaina izango da gurea. Gure programa fotokopia bidez banatu-ko dugu, eta kartelak ere ipini-ko ditugu. Ezer gutxi gehiago egiteko aukera izango dugu. Baliabide eskasak ditugu.

Udal hauteskundeen zerrendak argitara eman zituenean ezustean ikusi genuen zuen hautagaitza. Ganemos Andoain zuek, Irabazi Andoain besteak,... Ez ote da bientzat ere kaltegarria izan- go?

O.H. Izan daiteke, bai. Diario Vascoko kazetariak deitu zidan arte ez nekien gure antzeko hautes-zerrenda bat zegoenik. Neronek behintzat, jakin izan banu, beste hautagaitzarekin hitz egingo nukeen.

Gure aurkariak ez dira haiek.

Nolanahi ere harritu egiten gaitu hauteskundeetara aurkeztu-ko den alkategai batek herriko mugimendu politikoen berririk ez zuela aitortzea.

O.H. Lanbidez irakaslea naiz, hizkuntza eskolan. Arratsalde askotan eta larunbat batzuetan lan egiten dut eta hitzordu askotara joatea ezinezkoa zait. Besteak beste, Stop Desahucios-Kaleratzeak Stop mugimenduak deitzen dituenetara.

Zuen gisako mugimenduetan batzar irekiak eta primariak dela-

koak egiten dira. Zuen kasuan horrela izan al da?

O.H. Jarduera publiko txikia izan dugu. Ez dugu batzar irekirik egin, egia da. Azken egunean aurkeztu genuen zerrenda hauteskunde batzordean eta egun hauetan herritar ezberdinengana jo dugu proposamenak jaso asmoz.

Zuen eta Irabaziren kasua aztertzen hasita, zuen artean zerbait badagoela igartzen da. 2011n Ezber Batuko zerrendan zeundeten bost kide orain bi zerrenda ezberdinetan aurkeztu zarete.

O.H. Jakina da Ezker Batuaren baitan zatiketa izan zela. Une horretan neu aldendu egin nintzen militantziazatik. Ez dut uste bi hautagaitzen artean ezberdintasunak hain handiak izan- go direnik.

Soziologikoki eremu berbera erakarri behar duzue Irabazik eta zuek. Nola egiten da kanpaina bat egoera horretan?

O.H. Lehen aldiz aurkeztzen naizela alkatetzarako. Sergio Barreirok proposatu zidan, oso laguna dut eta pentsamendu politikoa berdina dugu. Politikarien ospea ez da onena, baina animatu egin naiz. Gure proposamenak aurkeztuko ditugu; Andoaingo herria hobet- zera doazenak.

Boterean egon eta PP edota PSOE ez diren alderdiak zaku berean sartzen al dituzue kritika egiteko garaian?

O.H. Ezker abertzaleak, noski, ilegalizazioarekin ezin izan du urte luzez boterean egon. Beraz, guretzat ez da boterean gotortu den alderdi politikoa bat. Agintaldi honetan batzar ireki asko egin dituzte auzoz auzo. Ez dira noski gauza bera. Politikoki, ordea, ez dugu denean bat egiten.

Andoaingo egoera ekonomikoaren jakitun zarete. Zein iritzi duzue?

O.H. Alkateak egoera ekonomiko-ko azaltzeko batzar batean izan ginen eta ikusi nuen irten- bidea zail samarra zela. Ikami- ka handia egon da ur kon- sortzioaren harira, eta nire us-

MOTZEAN

Pertsonaia historikoa:

RIKARDO ARREGI.

Kazetari bikaina, eta euska- raren alde lan handia eginda- koa zen.

Andoaingo txoko bat:

UNANIBIA ZUBIA.

“Sorginen zubia” bezala eza- gutzen dena. Topikoa da, bai- na leku magikoa da niretzat.

Auzoetako festen artean bat aukeratu:

SANTAKRUTZAK.

Betidanik gogoko izan ditut eta ahal dudan guztietan jaietan murgiltzen naiz.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

CARITAS.

Gizarte mailan lan handia egiten ari direlako, behar- be- harrezkoa garai hauetan.

Nabarmenduko zenukeen gai- nerako alderdietako kide bat:

TOÑY LANDA.

Kultur alorrean murgilduta ikusi dut beti.

tez eztabaidan aritzeak ez du zentzurik. Pixka bat informa- tuz gero, berehala ohartzen za- ra Ur kontsorzioa erakunde publikoa dela. Beste herrietan beste alderdi batzuk proposatu dute eta aurrera atera da.

Denen ongizatearen alde lan egingo dugu, eta zentzu horre- tan denen ongizatearen aldeko proposamenei ez diegu boiko- tik egingo.

Herritarren onerako diren proposamenak egingo ditugu eta beste alderdiek aurkeztu- dituztenak ere babesteko ara- zorik ez dugu izango.

Zinegotzi postua lortuz gero, kar- guari eusteko konpromisoa har- tzen duzu orduan.

O.H. Noski. Kosta egin zitza- dan pausoa ematea. Ez dakit ondo edo gaizki egingo dudana, baina ez dut euro bat ere la- purtuko. Triste da politiko batek hori esan behar izatea!

Nire egoera pertsonala alda- tzen ez bada zinegotzi lanak beteko nituzke.



UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN, ELKARRIZKETAK ALKATEGAIEI

Ana Carrere, EH Bilduko hautagaia

Kanpainan gaude, zein da gehien errepikatzeko asmoa duzun esaldi, eslogan edo mezua?

Ana Carrere: “Andoain herritarrekin batera ehuntzen” ari gara, rela azpimarratuko nuke.

Alkatea izango bazina buruan dituzun ideia zehatzetatik mar txan jarriko zenukeen bat auke-ratu.

A.C.: Sustapen ekonomikoa eta enpleguaren proiektua eskualdean lantzen jarraitzea oso garrantzitsua da, horrek beste onura batzuk ekarriko dizkiolako Andoaini.

Udalaren egoera ekonomiko zailak baldintzatu du agintaldi osoa. Bideratzen doala dirudi. Zein da zuen analisia? Zure alderdiak nola hobetuko luke hori?

A.C.: Agintaldira iritsitakoan egoera ekonomiko larriarekin topo egin genuen eta horrek azken lau urteak baldintzatu ditu. Aurreko agintaldian lehentasuna ohiko gastuetan jarri zuten, herritarren beharrei eman ordez. Hala, Udalaren ohiko gastuak oso handiak dira. Azken lau urteetan indar handia egin dugu hori guztia bideratzeko; maila teknikoan, lan sailetan, langileekin... Horrek eragin zuena izan du herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan.

Hemendik aurrera, ohiko gastuak kontu handiz erabiltzen eta jaisten saiatu behar dugu. Gainera, Udalak ur kalitatea bermatzeko mantenimendu eta inbertsio lan handia duenez, Ur kontsorzioan modu integralean sartzeari mesedegarria izango litzateke.

Enplegua, industria, zerbitzuak... Hain beharrezkoa den eskualdeko garapen agentziak abiadura eta indarra hartuko al du agintaldi berrian?

A.C.: Eskualde mailan lanean hasi ginen eta ezinbestekoa da bide hori jarraipena ematea. Beterrin proiektua bateratu, egoera soziokulturala bultzatu eta sinergiak aprobetxatu behar ditugu; hau da, herri batek duen potentzia eskualdera eraman eta guztiok elkarrekin joan behar dugu.

Egoera ekonomikoa hobetu da, defizitik ez baitago.



Ana Carrerek alkatetzan beste lau urtez aritzeko hautagaitza aurkeztu du.

Gizarte Zerbitzuak alderdi politiko ezberdinek kudeatu dituzte azken hamarkadan. Adostasun maila handiena duen alorra al da? Asebetetzen al zaitu bulegoetan egiten den lanak?

A.C.: Gaur egun behar handia dago; horregatik, alderdi guztiok garrantzia handia ematen diegula uste dut. Gure artean desadostasunak egon daitezke, lehentasuna eta indarra non jarri erabakitzerakoan; baina, orokorrean, gizarte zerbitzuek egiten duten lanaz guztiok arduratzen gara.

Udaleko zein beste alor edo atal-lak kezkatzen zaitu gehien?

A.C.: Enpleguak. Udalok oso eskumen txikia daukagu enplegua sortzeko eta egoera sozio-ekonomikoa aldatu ahal izateko. Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea da, baina gaiak kezkatzen gaituen arren, eskumen txikia dugu guk. Langabeziarekin amaitzeko bidean, erakunde zabalagoak eta eskumen handiagokoak daude. Gure aldetik, beraz, Beterri garapen agentziari indarra ematea izango da helburua.

Zergatik ez da egon, zure ikuspegitik, azken lau urteetan adostasun politiko handiagorik?

A.C.: Zoritxarrez ez da egon eta ziurrenik hori izan da alderdi guztion ahultasuna. 2011n espero ez ziren emaitzak jaso ziren, eta Udalera sartu ginen. Ordutik, kudeaketarako eta herritarren beharrrak bideratzeko gaitasunik ez genuela kaleratu nahi izan dute gainontzeko alderdiek.

Ziur nago guk ere akatsak izan ditugula adostasunetara ez iristeko, baina beraiek ekarpen oso gutxi egin dute. Udaletxe batean gauza asko dago kudeatzeko.

Demagun kaletik zoazela eta “denak igualak zarete!” aurpegiatzen dizutela. Zer erantzun-goto zenuke?

A.C.: Ulertzen dut ikuspegi hori izatea, baina hori zergatik esaten duen galdetuko nioke. Zer esan nahi da esaldi horrikin? Zertan gara denok berdina? Denak erakunde publikoetatik bizitzeko etortzen gara, benetan herritarrez kezkatu beharrean? Horrela bada,

ezezkoa erantzun eta eztabai-datu egingo nuke; ez baitut uste denok helburu berarekin etortzen garenik.

Nola definitiko zenuke zure burua? Zertaz zaude bereziki harro? Eta ahuldaderik baduzu?

A.C.: Alor politikoan, ezkertiarra, abertzalea eta feminista izan naiz betidanik. Maila pertsonalean, pertsona arrunta naiz, bizitza beste edozein herritarrek bezala egiten baitut: lagunekin eta familiarekin egonez.

Bestalde, harro nago Udalari esker herritarrekin eduki dudana harremanaz; andoaindar asko ezagutu dut eta beraiekin eduki dudana hartu-eman gogoko izan dut. Herritarrek konfiantza osoarekin bulegora etortzea lortu dut. Atea irekita egon da beti beraien arazo edo kontuak azaltzeko.

Maila pertsonalean nire bizitza kirolarekin oso lotuta egon da, entrenatzaile edota kudeatzaile gisa. Alor guztiak ukitu ditut kirolean eta harro nago lortutakoarekin.

Ahultasunak ere baditut. Zaila da erantzutea, baina egia da etxean despistatu samarra naizela, eta batzuetan egoskorra, izaera gogorrekoa...

Zein izan da zure lana agintaldi honetan?

A.C.: Gure misioa Udala irekitzea izan da; herritarrek eskura dutela ikustaraztea. Andoaindarrek eskubide osoa dute bertara sartu eta alkate eta zinegotziekin hartu-eman izateko.

Hala ere, herritarra ez da beti gugana etorri behar duena, guk ere eman behar baitugu beraiegana hurbiltzeko pausoa. Urteotan Udala kalera atera dugu auzoetara joanez.

Zenbateraino eragingo dizute zailtasun ekonomiko handian boterean egoteak?

A.C.: Boterean egoteak neke handia suposatzen du, baita maila pertsonalean ere. Egoera ekonomikoak neke eta ardura handia ekarri du, kezka handia delako. Ez genuen uste egoera horren larria zenik; horregatik, herritarrei esandako zenbait gauza ezin izan ditugu bete. Hala ere, espero dut herrita-

MOTZEAN

Pertsonaia historikoa:
JUANITA ALKAIN.

Bere ibilbideaz gain, emakume bezala zailtasun handiak izan zituelako eta euskararen alde ere lan handia egin zuelako.

Andoaingo txoko bat:

SANTA KRUTZ ELIZA INGURUA. Bertan elkartzen dira Oria eta Leitzar. Oso indartsua da natura aldetik eta, gainera, herrigunean dago.

Auzoetako festen artean bat aukeratu:

ETXEBERRIETAKO JAIK. Zaila da, auzoetako jai guztiak gogoko ditudalako.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

LEIZARAN, TXISTULARIAK. Leizaran eskubaloia taldeak gazte asko biltzen ditu, mutil zein neska. Txistulari taldea azken urteetan lan handia egiten ari da.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat:
TOÑY LANDA.

Herrikoa, oso andoaindarra eta parte hartzailea da.

rrek ulertuko gaituztela. Gauza batzuk egiteke daude: liburutegia, kultur sortzaileentzat espazioa... Beharra hor dago. Hurrengo urteetako garapen ekonomikoa zein den ikusi behar dugu; oraingoz bide onean goaz, baina egoera ez da proiektu handitan sartzeko modukoa.

Zergatik eman behar zaizu botoa zuri, eta ez besteei?

A.C.: Duela lau urte hasitako lanak jarraipena behar duela. Lau urte ez dira nahikoa proiektuak ikusteko; batetik, egoera ekonomikoa zaila izan delako eta bestetik, prozesuak luzeak izaten direlako. Gure aurretik Udalean egon zirenen esku uztea udaletxea gainbehera eramatea izango litzateke, haiek Udala gaizki eta ekonomikoki zuloan utzi zutelako.

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN, ELKARRIZKETAK ALKATEGAIEI

Jorge Mourinho, Irabaziko hautagaia

Nondik sortu da Irabazi Andoain koalizioa?

Jorge Mourinho. Azken bi urteetan gorpuztuz joan zen mugimendua da, jende konprometituak osatua eta ekimen ezberdinetan ibilbide luzekoa dena. Gure artean daude Caritas, Stop Desahucios, Activate langabetuen mugimendua,... Udal ikuspegian pentsatzen hasi eta hauteskundeei begira jarri ginen. Udal politikan parte hartze zuzena izateko borondatea dugu. Horrela gorpuztuz joan zen mugimendua. Zein markarekin aurkeztuko ginen erabaki gabe genuen. Gure artean independente ugari dago eta gutako batzuk EPK alderdi komunistatik gatzoz. EPK Ezker Batuan zegoen, gerora Ezker Anitza-Izquierda Unida dena. Ikuspegi federala dugu, ez dugu inoiz IUekin lotura eten. Ondoren iritsi zen Equo eta Alternativa Republicanarekin batera Irabazi koalizioan joateko aukera.

Denbora daramazue, beraz, lanean.

J.M. Irabazi Andoain gure hautes-zerrenda adierazi duan bezala, denbora luzez gorpuztuz joan da. Lana egin dugu gogotik eta azkenaurreko pausoa izan da gure mugimenduari sigla jartzea.

Gure harridurarako Gane-mos Andoain izeneko zerrenda hori aurkeztu da hauteskunde-etara.

Zergatik aurkezten zarete, zeintzu dira zuen ideia nagusiak?

J.M. Gainerako mugimendu politikoei bezala, Udalgintzan ordezkaritza izan nahi dugu. Bigarrenik, gure proposamenak Andoain eta herritarrentzat interesekoak izan daitezkeela uste dugu. Programa politikoa lantzen aritu gara eta espero dugu Udal ordezkaritza eskuratzea.

Bi zerrenda beretsu aurkeztean lan erantsia izango dugu, gure inguruari nortzuk garen ondo azaldu behar diogu nahasketarik izan ez dadin.

Zuen programatik ideia zehatzetan bat azal ezazu.



Jorge Mourinho Irabazi Andoain koalizioko alkategaia da.

J.M. Desenpleguarena, zalan-tzarik gabe. Langabeziari aurre egiteko neurriak proposatzen ditugu: Lan kooperatibei lagundu, izaera sozialeko merkataritza sustatzea, langileak kenduz zerbitzu automatikoak erabiltzen dituzten gasolindegia edota erakundeei zergak handitzea.

Herri mailan enplegua atzeratzearen plan bat martxan jarri nahiko genuke.

Udaletxean azken agintaldietan ez dela nahikoa egin iruditzen al zaizue?

J.M. Gure ikuspegia da blokeo modukoa dagoela udaletxean, bereziki gehien ukitzen gaituen gizarte alorrean. Udalaren konfigurazio politikoa ezinezkoa izan da alor batzuetan garatzea. Adibidez, etxebizitza alorrean gehiago egin zitekeen.

Agintaldi honetan, ordea, gehiengo politikorik ez da egon alor horiek garatzeko. Alderdiko estrategia politikoetan ibili dira alderdi batzuk, eta hortik blokeo egoera hori. Badi-rudi estrategia politikoa gai-

lentzen dela, garai hauetan, gizar-tearen ongizatea lehenetsi behar litzatekeenean.

Udal ordezkaritza lortzen baduzue alderdi bezala nola funtzionatuko duzuen argi al duzue?

J.M. Talde moduan lan egiten dugu, gurea taldeko lana da. Ildo horri heldu nahi diogu, egunetik egunera kolektibotasunari eutsiz. Jokabide horrekin Andoaingo herritarren proposamenei irekita gaude. Gure erabakiak taldean hartuko ditugu, modu kolektiboan. Hilean behin bilera irekiak egingo ditugu. Hori dagoeneko erabakita daukagu.

Zuena bezalako alderdi berri batek nola egiten dio aurre hamabost eguneko kanpainari?

J.M. Irabaziren hautes txartela etxebizitza guztietan banatuko da, eta hori guretzat garrantzitsua da. Kartelak egin ditugu eta datozen egunetan ahal duguna egingo dugu. Boletín bat egin dugu gure lehen bost hautagaien argazkiarekin, eta gure ideia nagusiekin. Ditu-gun mugak kideen militantzia-

rekin ordekatzen ahaleginduko gara.

Apirilaren 24an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zuen zerrenda argitaratu zen, eta baita Gane-mos Andoain delakoa ere. Ezusteko handia izan zen. Zuek beste zerrenda horren berri ba al zenuten?

J.M. Ez. Guk ere ezustean jaso genuen albiste. Izena ia berdina da, guk helegitea aurkeztu genuen eta ez digute jaramonik egin. Gurea Irabazi Andoain da, haiena Gane-mos Andoain.

Haiek azken orduan aurkeztu duten hautes zerrendarekin, eta izen horrekin gainera, nahasketa sortzea helburu dutela uste dugu. Iraganen Ezker Batuaren baitan sortu zen hausturaren ondorio da gaur egun Andoainen bizitzen ari garena. Prozesu hori barrutik bizi dugunok badakigu zertaz ari garen, baina zoritxarrez botu-emailek ez dituzte mugimendu hauek ulertzen. Guri dagoeneko aipatu digute, “baina, zuek orain nortzuk zarete?”. Atera kontuak!

Biak ere kanpoan geratzeko arriskua duzue.

J.M. Halaxe da.

Apirilaren 24tik hona zuek eta besteek hartu emanik izan al duzue?

J.M. Ez.

Eta hitz egiteko asmorik ba al duzue?

J.M. Ezer gutxi esan dezaket. Gane-moseko ena politikoki jokal-di zikina da, haiekin hitz egiteko ez dut batere gogorik. Uste dut ez dutela helburu hori, gainera. Haien helburua gure aurka joatea da.

Bitxia da, hilabete asko daramatzazue lanean eta Gane-moseko Olga Hernandezek dio ez zuela zuen berririk.

J.M. Izan daiteke. Gane-mosen atzean dagoen jende horrek hautagai bat behar zuen. Andoaingoa da, zerrendaburu garbi bat behar zuten eta gainera eremu batzuetan ezaguna da. Uler dezaket berak gure berri ez izatea. Ez du alkategai

MOTZEAN

Pertsonaia historikoa:

Ez zait orain bat burura etortzen.

Andoaingo txoko bat:

LEITZARAN HARANA.

Txikitandik Ollokiraino joaten ginen, egunak igarotzera. Bere osotasunean ederra da.

Auzoetako festen artean bat aukeratu:

Ez naiz oso festazalea. Elkar-teetan afaltzea nahiago izaten dut eta emazteak izugarri maite ditu Andaluziako dantzak. Horietara joaten gara.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

STOP DESAHUCIOS.

Azken urteetan aipagarria da elkarte horrek egin duen lana. Badira historia luzeko erakundeak ere. Beharrak dituztenen alde mugitzea garrantzitsua dela deritzot.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat:

MIREN AGIRREURRETA.

Gizarte mailako hainbat kontuetan murgilduta ibili gara eta udaletxera jo dugun bakoitzean jokabide zuzena eta atsegina izan du gurekin.

izateko profila betetzen, baina irudi hori behar zuten. Gane-moseko hautes-zerrendaren hurrengo hautagaiak ikusi ahal-berehala antzeman dugu nor dagoen mugimendu horren atzetik. Talde horretan pertsona batzuk daude non sartu diren kontziente izan gabe. Pertsonen aurka ez dugu ezer, baina Gane-moseko batzuen helburua guk hautagaitzarik ez lortzea da.

Hautagaia zeu zara. Kargua lortuz gero, lau urteak udalgintzan emateko konpromisoa hartzen al duzu?

J.M. Prest nago ardura horiek hartzeko. Lehen aldiz ardura postuetan noa. Sindikatuetan esperientzia badut eta politikan lehen aldia izango da.

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN, ELKARRIZKETAK ALKATEGAIEI

Maider Lainez, PSE-EEko hautagaia

Kanpainan gaude, zein da gehien errepikatzeko asmoa duzun esaldi, eslogan edo mezua?

Maider Lainez: “Andoain zeu zara”, datorren lau urtetarako prestatu dugun proiektua gertukoa eta errealista delako. Lau zutabetan oinarrituta dago, edornork Andoain bizitzeko, lan egiteko, elkarbizitzeko eta gozatzeko aukeratu dezan.

Alkatea izango bazina buruan dituzun ideia zehatzetatik mar-txan jarriko zenukeen bat aukeratu.

M.L.: Insituzio guztien helburua lana sortzea da; hori dela eta, ekintza eta politika guztiak ildo horretatik joango dira. Ez da erraza izango eta ez dugu berehala lortuko, baina buru-belarri arituko gara lanean. Aldi berean, gizartean baztertuta daudenek kezkatzen naute: egunean hiru aldiz jan ezin dutenek, berogailua piztu ezin dutenek, etxetik kaleratuta daudenek... Zero bazterkeria lortu nahi dugu.

Udalaren egoera ekonomiko zailak baldintzatu du agintaldi osoa. Bideratzen doala dirudi. Zein da zuen analisia? Zure alderdiak nola hobetuko luke hori?

M.L.: Denon baliabideak eraginkortasunez erabili behar ditugu, bakoitzak bere etxean egiten duen bezala. Udaletxean diru gehiagorekin jokatzeko, baina ditugun gastuak berrikusten eta gutxitzen saiatu behar dugu; eta, aldi berean, dirulaguntzen bidez diru sarrera handiagoak lortu behar ditugu. Bidea ez da familiak itotzea eta tasak igotzea. Gainera, nire konpromisoa erakutsi nahiko nuke gardentasunez eta zintzotasunez jokatzeko, izan ere, euro bakoitza non gastatuko dugun argitaratuko dugu.

Enplegua, industria, zerbitzuak... Hain beharrezkoa den eskualdeko garapen agentziak abiadura eta indarra hartuko al du agintaldi berrian?

M.L.: Eskualdeko garapen agentziaren alde gaude, Gipuzkoan horrelakorik ez duen eskualde bakarra baikara. Oso garrantzitsua dela uste dugu.



Maider Lainez Andoaingo sozialisten buruzagia eta alkatetzarako hautagaia.

EH Bilduk indarrean dagoela dioen arren, gezur hutsa da, oraindik forma juridikorik ez duelako. Hauteskundeetarako bi hilabete falta direnean agentzia sortuta dagoela esatea estrategia hutsa da. Gure ustez, jendearen itxaropenarekin jokatzeko tamalgarria da.

Gizarte Zerbitzuak alderdi politiko ezberdinek kudeatu dituzte azken hamarkadan. Adostasun maila handiena duen alorra al da? Asebetetzen zaitu bulegoetan egiten den lanak?

M.L.: Gizarte Zerbitzuen kasuan horrela izan beharko luke, baina zoritxarrez, batzuetan ez da horrela gertatu. Adibidez, laguntza sozialekin arazo asko izan ditugu. EH Bildu eta EAJren babesarekin, diru zati handi bat presoak bisitatzeko bidaietako gastuetara bideratu da. Gure ustez, beste gauza askotan erabili genezakeen dirua da hori: haurtzaindegian tasak jaisteko, San Juan Bautista egoitzan erabiltzeko... Gai horietan inbertitzea positiboagoa eta emankorra goa litzateke.

Udaleko zein beste alor edo atalak kezkatzen zaitu gehien?

M.L.: Asko daude, baina agian hondakinaren bilketa azpimarratuko nuke, herritarren artean duen oihartzunarengatik. Plenoan aho batez onartu zen bosgarren edukiontzia jartzea, baina denbora aurrera doa eta EH Bilduk ez du oraindik mar-txan jarri. Argi utzi nahi dut alkate izango banaiz ez dudala atez atekoa jarriko.

Zergatik ez da egon, zure ikuspegitik, azken lau urteetan adostasun politiko handiagorik?

M.L.: Legegiltzaldian zehar EH Bilduk ez du ulertu gehiengorik ez zuela eta ez du akordioetarako gaitasuna erakutsi. Inposaketaren bidez hartu dituzte erabakiak, eta horrek arazok sortu ditu. EAJrekin “akordioak” egitea lortu dute, aurrekontuak egiteko, herritarrei tasak igotzeko, presoan eskubideekin lotutako mozioak aurrera eramateko... Atal horietan zaila egin zaigu akordioak lortzea, guk ezarritako lerro gorri eta mugak ezin genituelako igaro.

Dena den, herritarren eskubideak eta ongizatea defendatu behar izan direnetan hor izan gara. Halere, alderdi bakoitzak autokritika egin eta datorren legealdirako zein gauza aldatu behar dituen ikusi behar dituela uste dut.

Demagun kaletik zoazela eta “denak igualak zarete!” aurpegi-ratzen dizutela. Zer erantzungo zenuke?

M.L.: Etor dadila batzorde edo pleno batera, denok berdinak ez garela ikusteko. Telebistako berriekin zaila da politikan sines-tea, eta politikari batzuk ez dute horretan laguntzen, ustelkeria kasu asko baitaude. Baina horiek ez dira politikariak, horiek lotsagabeak eta lapurrak dira. Udaletxean, ordea, gardentasunez eta zintzotasunez jokatu behar dugu.

Nola definitiko zenuke zure burua? Zertaz zaude bereziki harro? Eta ahuldaderik ba al duzu?

M.L.: Goi mailako ingeniaria naiz, mekanika eta antolakuntzan espezializatua. Ezkondua eta sei urteko haurraren ama. Enpresa pribatuan egin izan dut lan, eta egun Cita-Alzheimer fundazioan dihardut bertako kudeaketa arduradun lanetan. Aldi berean, Andoainen zinegotzi eta sozialisten bozeramailea naiz. Gertuko emakumea naiz, konprometitua, apasionatua, tematia, taldean lan egitea gustatzen zaiona, entzuten duena eta jendearekin egoten dena. Harro nago langilea naizelako eta nire helburuak lortzeko jo eta ke aritzen naizelako. Burugogorra naiz, eta zerbaitetan sinesten dudanean, borrokatu egiten dut, astuna izateraino.

Zein izan da zure lana agintaldi honetan?

M.L.: Hasiera batean zinegotzi lanetan aritzen nintzen gaiak landuz, batzordeetara joanez..., Duela bi urte, ordea, bozeramaile izendatu ninduten eta ordutik nire lana zertxobait aldatu zen. Aurrez egiten nituen lanez gain, plenoetan parte hartze handiagoa dut eta alor soziala ere niri dagokit; prentsa oharrak egitea, prentsaurrekoak ematea eta prentsaekin egotea.

MOTZEAN

Pertsonaia historikoa: AMA KANDIDA.

Garai horretan berdintasunaren alde egin zuelako, emakumeon profesionaltasunaz arduratu zelako.

Andoaingo txoko bat: LEITZARAN HARANA.

Izugarrizko altxorra dugu eskura; bertara joan eta ibaia- ren soinua entzutea niretzat oso polita da.

Auzoetako festen artean bat aukeratu:

Ahal dudan guztietan egotea gustatzen zait; beraz, oro har, denak gogoko ditut.

Herriko gizarte, kultur, kirol mugimendu bat:

Zorionez herri mugimendu handia dugu eta denak beharrezkoak dira.

Nabarmenduko zenukeen gainerako alderdietako kide bat: ANDONI BALTASAR.

Alderdi ezberdinetakoak izan arren, hasieratik oso erraza egin zitzaidan berarekin hitz egitea. Pena ematen dit datorren agintaldian ez egoteak.

Zenbateraino eragingo dute estatu mailako aldaketa politikoek alderdi sozialistan?

M.L.: Udal hauteskundeetan gaudenez, herritarrek gertutasuna bilatzen dute eta hautagai diren pertsonetan jartzen dute arreta. Pertsonari bozkatzen diete gainontzeko gauzen gainetik.

Zergatik eman behar zaizu botoa zuri, eta ez besteei?

M.L.: Kultur eta kirol ekintzekin konformatzen ez bazara, preso- en senitartekoei diru laguntza ematearekin ados ez bazaude eta mesiasengan sinesten ez baduzu, guk gertuko proiektu errealista aurkezten dizugu. Zuen partaidetza eta inplikazioarekin aurrera eramango dugu. PSE-EE bozka ezazu, bestee- k zure izenean erabaki ez dezaten. Andoain zeu zara.

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 24AN

Rantxerak, botoak eta abstentzioa



JON ANDER UBEDA • ANDOAIN

Jorge Negrete handia gogoan, Jon Eskudero kazetari-pilotari-kantari-showmanak nik baino hobeto kantatu-ko luke rantxera ederra: “¡Ay, Jalisco no te rajes! me sale del alma gritar con calor, abrir todo el pecho pa’ echar este grito: ¡Qué lindo es Jalisco, palabra de honor!”

Umore piska bat ondo etorriko zaie hautagai politikoei, bereziki maiatzaren 24a oraindik ere urruti ikusten dutenei. Animo! Eta zorterik onena. Zertara dator rantxera bat? Bada, Jalisco egun hauetan ere Udal hauteskunde kanpai-

nan murgilduta daudelako. Kukurrukuak, ordea, luze iraungo du Mexiko aldeko lur haietan. Jalisco apirilaren 5ean hasi zen kanpaina. Ba al dakizue herritarrok noizko deitu dituzten bozkatzera? Ez didazue sinestuko: Ekainaren 7rako. Ondo irakurri duzu bai. Bi hilabete luzeko hauteskunde kanpaina! Imaginatzea ere kosta egiten da. Ez nuke hango tokiko hedabideren bateko kazetari izan nahi. Nago Andoingo hautagaiek ere ez luketela han “candidato” modura aurkeztu nahi. Hemengoa Hamabost eguneko maratonia zela adierazi nuen aurreko astean. Eta Mexikokoa zer da ba? Zegama-Aizkorri mendi maratonia bi aldiz jarraian?

Ekainaren 8an internet bidez Mexikoko Udal hauteskunde-en emaitzak ikusteko gogoia piztu zait. Abstentzio eta boto zurien kopuruari erreparatuko diot bereziki; nire elkartasun beroena kokoteraino bukatuko duten mexikar gutziei.

AURREKARIAK

Azken hauteskunde-en emaitzak:

2014. Europara Batasuna

EH BILDU	1.484	30,88%
EAJ-PNV	931	19,38%
PSE-EE	923	19,21%
IU	317	6,6%
PODEMOS	316	6,5%
PP	304	6,3%
Botoak	4.843	41,54 %
Abstentzioa	6.816	58,46 %

2012. Eusko Legebiltzarra

EH BILDU	2.325	32,22 %
PNV	1.861	25,8 %
PSE-EE	1.836	25,45 %
PP	476	6,6 %
Botoak	7.348	62,67 %
Abstentzioa	4.376	37,33 %

2011. Espainiako Kongresua

AMAIUR	2.545	32,94%
PSE-EE	2.051	26,55%
EAJ-PNV	1.352	17,5%
PP	1.009	13,06%
IU	405	5,24%
Botoak	7.805	66,18 %
Abstentzioa	3.989	33,82 %

2011. Udal hauteskundeak:

BILDU	2.500	33,6%	7
PSE-EE	2.062	27,71%	6
EAJ-PNV	1.363	18,32%	3
PP	561	7,54%	1
EB-B	369	4,96%	0
ARALAR	237	3,19%	0
Hamaikabat	203	2,73%	0
Botoak	7.500	63,38 %	
Abstentzioa	4.376	36,62 %	

BOTOAK ETA ABSTENTZIOA

Atzera begiratzeak analisirako sakontasuna eman dezake. 2011n Udal hauteskundeak eta Espainiarako Kongresurako hauteskundeak deitu zituzten. Begiraozue bi hauteskundeetako emaitzei. Deialdiak hain ezberdinak izanik, boto kopurua ia berbera da Bildu, PSE eta EAJren kasuan; harrigarria. Orain errepara ezazue PPren emaitzatan. Urte berbera izanik ere, Udal hauteskundeetatik Espainiakora boto kopurua bikoiztu zuen ia.

Abstentzioaren portzentaia ikusita, bestalde, Udal hauteskundeetan jende gehiago geratu zen etxean. Rajoyk tiroi handiagoa izan zuen, beraz.

PPren eta abstentzioaren gorabeheren artean lotura badago, beraz. 2015ean ustelkeria kasuek baldintzatuta dago. 2014an Europarako lortu zituen 304 botoekin, PP Udal ordezkaritza kanpo gera daiteke.

17 eserlekuetarako Bildu, PSE eta EAJ faborito dira. Ezer esan gabe, asko esaten ari naiz.



Kartel lehia zazpigarren txarteldegian, zehazki inori gordeta ez dauden horietan.

Mari Juli Azkueren omenez

Luria, gure erara

Egape Dantza Taldearen eta Anabason eskutik

Dantza ikuskizuna **111AKADEMIA:** aurkeztuta

Andoain, 2015, maiatzak 22. Bastero Kulturgunea. 20:00

Emanaldi bakarra!

SARRERAK 10 €-tan SALGAI
Asteasu: Maitin liburutegia
Andoain: Emaitza eta Stop liburutegiak
Aurraildeikarta (Arantzizu plaza)
Urnieta: Sarobe zentroa eta Kantoi taberna
Amasa-Villabona: Amasa kafetegia

Musika Anoeta estadioan



Soinuak musika eskolako akordeoi ikasleek pasa den larunbatean goizean Errenterin ospatutako Akordeoi Topaketan parte hartu zuten, Musi-

kaldiren barruan. Arratsaldean Anoetara joan ziren Emusik 2016 laborategian parte hartzera. Egun pasa polita izan zen haientzat.



Udal musika eskolako saxofoia, klarineta, flauta, eskusoinua, biolina, perkusioa eta tronpe-

tako 84 ikaslek XII. Europako Musika Eskolen Jaialdian parte hartu zuten, Anoetan.

Eskola Agenda 21aren udalbatza berezia

Maiatzaren 7an udaletxeako udalbatza aretoan elkartu ziren Andoaingo Lehen Hezkuntza, Derri gorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleak Udaleko ordezkariekin. Bertan izan ziren Ana Carrere, Mainer Lainez, Pedro Unanue eta Estibalitz Mujika, eta Eskola Agenda 21aren baitan ikasturtean zehar egindako lanaren emaitzak adierazi zizkieten.

Ikasturte honetan elikadura jasangarri eta osasungarriaren inguruan lanean aritu dira eta herritarren elikadura ohiturak, baserrien egungo egoera eta mundu mailako elikadura ereduak aztertu ostean, Andoaingo herriaren analisia azaldu zuten. Hala, andoaindarren ohiturak kontuan hartuz, gaiaren inguruko arazo eta proposamenak azaldu zizkieten.

Ikasleek azaldu zuten, gizarte jasangarriago eta osasuntsuago batean sinesen dute. Horregatik, horixe lortzeko konpromezua hartzeaz gain, zein erabaki hartu zituzten azaldu zuten. “Plastiko gutxiago erabiliko dugu eta zabor gutxiago sortuko dugu. Birziklatu egingo dugu, baita sukaldeko olio

eta bestelako hondakinak ere”, hitz eman zuen batek. “Elikagaien etiketak begiratuko ditugu eta ekologikoei, bertakoei zein garaian garai-koei lehetasuna emango diegu”, adierazi zuen besteak.

Azkenik, Andoaingo Udalar bizi kalitatea hobetzeko eta herriaren hobekuntzarako proposamenak egin zizkieten: auzoetako dendak sustatzea, baserriarren esnea saltzen duen makina jartzea, barazki dendatan esku-larruak debekatzea, bilduki gutxiago erabiltzeko neurriak hartzea, txakurrentzat parkeak jartzea, gorotzen arazoari irtenbidea ematea, baratza ekologikoak langabezian daudenei eskaintzea...

Ordezkariek tentu handiz aditu zieten guztia eta udalbatza bereziari amaiera emateko, Ana Carrere alkateak hartu zuen hitza. 2014. urtean hartutako konpromezuetatik zein bete dituzten eta zein ez azaldu zien ikasleei. “Saiatzen gara al diren neurriak zuek emandako proposamenei kasu egiten. Dena den, batzuetarako badugu erantzuna, beste batzuetarako ez”, aitortu zuen. Azkenik, 2015erako konpromezuak zehaztu zituen.

Tokikomeko lehendakari Urko Aristi irekieran izan zen

Tokiko hedabideak Gasteizen




Aiurri hedabideen aleak ikusgai daude Gasteizko erakusketan.

Euskarazko toki komunikabideen erakusketa antolatu du Gasteizko Oihaneder Euskara-

ren Etxeak, 'Bertatik bertara eta beti eskura' izenburupean. Egungo euskarazko tokian to-

kiko komunikabideen mapa zein den ezagutzeko aukera izango du bisitariak.



EKAINAREN 3AN URNIETAN
17:30. EGAPE IKASTOLAKO JOLASTOKI ESTALIAN.
SARRERAK SALGAI



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Azken aurreko ajea (VI)

Auskalo zenbat kilometro! Goitik behera Andeetako mendikate osoa lurrez eginda, Tucumán probintziazatik Córdoba probintziara. Eguraldi hotza, kazkabarra egin berria da. Tupamaro gerri-lariak ere eroso dabilta. Autobusa hartu eta iluntzean ailegatu gara Córdoba hiri nagusira, milioi pare bat biztanle izango du. Argentinako bigarren hiria, biztanlez eta garrantziz.

Jesuiten etxera joan ginen. Ilundu-ta zegoen. Etxeak hesia zuen inguruan eta hesiko atletik etxera bertara ehun bat metro izango ziren, eta ateko txirrinak funtzionatzen ez... Utzi egin behar izan genuen eta lehenengo aldiz lotoki bila hasi. Garai hartan gerrilarien beldurra zegoen, eta gu motxila xahar batekin ikusi ondoren esaten ziguten “zuentzat ez dago tokirik”. Hartan, kalean ere ez zebilen inor; azkenik gizon bat ikusi genuen pasatzen zetorrena eta Anjeli esan nion: “gizon horri galdetu behar zioat zer pasatzen dan”. Eta esan nion: “logela bila gabiltza, bi apaiz gera familia bisitatzera etorriak eta ez daukatela tokirik guretzat esaten digute...” Erantzun zigun: “Eta ez dizue emango ere...” Eta jarraitu zuen: “nik etxera eramango zintuzketet baina arreba kanpora joana det, etxea inori uzteko moduan ez dago...” Gure trantzea seguritatea zela eta ez besterik.

Gizon hura armeniarra zen, etorkina noski, eta etxera eramane gintuen. Ohe txiki bat zeukan. Anjelek bi aulki elkartu eta lo seko egin zuen eta ohea niri utzi zidan. Hurrengo goizean, sei-etarako jaikiarazi, berak lanera joan behar zuen-eta, prestatu eta autobus geltokira eramane gintuen. Horrela dabilenarentzat eta hiri handi batean, ez

“Bi apaiz gera familia bisitatzera etorriak eta ez daukatela tokirik guretzat esaten digute”

dakizu zer mesede den hori! Gerora esan dugu mesederik handiena gizon hura izan zela.

Ni erdi galdurik nebilan eta Ucacha herriaren izena ikusteak inpresio handia egin zidan: “Gaur iritsiko naiz nire metara”. Hartu dugu autobusa, agurtu dugu gizon armeniar hura. Egun eguzkitsua zen; oso herri politak. Eta hama-rak aldera iritsi gara herri berezi batera: Villa María. Eta autobusak geldialdi handia zuen, ordu erdikoa. Hamaketakoa egin genuen. Hau sorpresa: urdaiazpikoa baso bat ardoarekin. Bai bat eta bai bestea urtea zen probatu gabe geundela; ahaztu ezinezko poza sentitu genuen. Handik atera eta herri polit bat ikusi eta begiratu letreroa eta izena Idiazabal, ametsetan ote nengoen pentsatzeraino. Orain dela gutxi anaitu dira hemengoa eta hango Idiazabal.

Gerora naiz pasatu eta ikasi det herri hau. Hemengo Idiazabalen ere badakit zein etxetako jatorriko ondorengoak diren Amerikako Idiazabalgoak. Hemengoak hara joan, herri bati bere herriaren izena eman eta horrela betirako...

Eguerdian iritsi ginen Ucachara. Eserleku bat bazegoen eta eseri bertan, zigarrotxo bat erre eta esan nion Anjeli: zer aurpegi jartzen duan hermanos Elorza esatean ikusi behar dit. Eta holaxe sartu nintzen, eta esan nionean zer entzungo eta han: “herri osoa zain geunden zuek noiz etorriko: bejondeizuela! Ongi etorriak!!”

Futbola

29. jardunaldia, emaitzak:

Euskalduna 2-0 Mariño
Urnieta 2-2 Allerru
Lengokoak 3-1 Orioko

Sailkapena:

1. Euskalduna	67
2. Orioko	65
4. Urnieta	55

30. jardunaldia, asteburuan:

Pasaia-Euskalduna
Orioko-Urnieta

UKE pilota

ASTEBURUKO PARTIDAK URNIETAKO PILOTALEKUAN:

Ostirala, 15. 18:00

Urnieta Inf1-Oiarpe.

Urnieta Inf2-Eple.

Eskuz binaka, Udaberri.

Urnieta Kad-Hernani

Eskuz banaka, Udaberri.

Igandea, 17. 11:00

Urnieta Kad-Zumaia

Eskuz banaka, Udaberri.

KIROL ALBISTEAK

K-Stretch lantzeko aukera Allurralde kiroldegian



“Metodoa eraginkorra dela ikusi dugu eta hori izan da kiroldegira ekartzeko arrazoia”, adierazi du Ixiar Olano teknikariak.

K-Stretch egiteko aukera eskainiko dute aurrerantzean Allurralde Kiroldegian. Udako ikastaroetan eskaintzeaz gain, 2015-2016 ikasturteko eskaintzan txertatuko dute. Herri-tar askorentzat metodoa berria denez, maiatzaren 21ean K-Stretch-aren sortzaile den **Danilo Barziok** azalpenak emango ditu Basteron.

Ixiar Olano kirol teknikariaren ustetan jarduera erabat berritzailea eta interesgarria da, norberaren posturaren inguruan hezteak dakarrelako. “Metodoa eraginkorra dela ikusi dugu eta hori izan da kiroldegira ekartzeko arrazoia. Orain arteko ekin-tzek beraien publiko zehatza zuten, baina hau guztien osagarri izango da”, azaldu du.

K-Stretch hamaka baten gainean egiten da eta ariketa mota ezberdinak lantzen dira bertan: posturalak, mugimendu artikularrak... “Hamakaren eginkizuna da, batetik, norberaren postura egokia mantentzea eta, bestetik, pertsona bakoitzaren arazoaren arabera ariketen intentsitatea neurtzea”.

Metodoa honetan gorputzeko muskuluen luzapena lantzen da, eta estaterako, bizkarreko mina dutenentzat oso lagungarria da. Izan ere, Danilok azaldu duenez, gorputzeko muskuluen bi herenek funtzio postu-

Metodoa azaltzeko Danilo Barzio adituak hitzaldia eskainiko du Basteron, datorren maiatzaren 21ean arratsaldeko 19:00etan

Gorputzeko muskuluen bi herenek funtzio posturala dute eta hauek entrenatzea eta estimulatzea ezinbestekoa da.

rala dute eta hauek entrenatzea eta estimulatzea ezinbestekoa da.

Jarduera hau adin guztietako jendeari zuzenduta dago; haur, gazte zein helduei. “Mundu guztiari zuzenduta dago, osasuna guztion ardura baita. Eliteko kirolariet egiten duten arren, gazteek, kirolari ez direnek eta pertsona helduek ere praktikatu dezateke”, nabarmendu du. Ixiarrek ere denontzako baliagarria dela azpimarratu du: “Batzuk kirol maila hobetzeko egingo dute, eta beste batzuek bizkarreko mina dutelako”.

Hala, publiko zabal batera iristea gustatuko litzaieke. “Hala ere, ez gaude gure bizkarra zaintzera hezita. Ondorioz, mina edo arazoren bat sortzen denean hasten gara arduratzen. Beraz, hasiera batean behintzat, arazoak dituen jendea animatuko dela uste dugu”, aitortu du.

K-Stretch zortzi laguneko taldetan egingo dute, talde txikian egitea eskatzen duen jarduera baita. “Irakasleak gainean egotea eskatzen du, ariketak pertsonalizatuagoak direlako”, azaldu du Ixiarrek. Horrek prezioan

ere eragina izango duela jakinarazi nahi izan du, pertsonalizatuagoa izateak garestiagoa izatea esan nahi duelako.

Jendea metodoaren berri izaten ari da eta ahoz aho zabaltzen ari da dagoeneko. Horregatik, hilaren 21erako hitzaldi bat prestatu dute. Danilok metodoaren inguruko azalpenak emango ditu ostegunean Basteroko ekitaldi aretoan, 19:00etan.

“Bizkarreko mina zergatik izaten dugun azalduko dut; ondoreen kausa nagusiak zein diren eta nola jokatu beharko genukeen horiei aurre egiteko”. Era berean, K-Stretch metodoaren inguruan hitz egingo du. Horregatik, andoaindarrei hitzaldira joateko gonbidapena luzatu die.

PROBATZEKO SAIOAK

Uztailetik aurrera martxan jarriko dute udako ikastaroetan, baina lehenago, saio batzuk doan eskainiko dituzte. Egunak zehazteke daude oraindik. Danilok andoaindarrak probatzera animatu nahi ditu, bere ustez, gorputzarekin esperimentatzeko modurik onena delako.

Berako proban taldeka onenak



Jubenil mailako talde sendoa da Andoaingoa. Denboraldi honetan hirugarren aldiz taldekako sailkapena irabazi du. Azkena, Berako lasterketan. Jokin Alberdi gainera EH Kopan lidertzan jarri da.



KIROL ALBISTEAK

Futbol jokalaria eredugarria

Ander Lopez (Andoain, 1981) Euskalduna futbol taldearen historian denboraldi gehien jokatu dituen jokalaria da; 19, hain zuzen. Iaz egin zion agur futbolari, eta omenaldi xumea eskaini zion Euskalduna taldeak apirilaren 25ean. Argi zeukaten arrazoia: "kirol bikaintasunaren eredu paregabea" izan da Lopez. Urte guzti horietan taldeari ordu eta egun asko eskaini dizkiola azpimarratu dute, betiere "leialtasunez, nekez, iraunkortasunez eta maitasunez".

Ez da txantxetako Lopezek 100 urtetara doan Euskaldunan lortu duen marka, eta horrexegatik, Jabier Zatarain Euskaldunako idazkari eta argazkilariak liburua osatu du, bere argazki eta estadistika pertsonalez josia. "Ezusteko ederra eman dit Jabierrek! Egundoko ilusioa egin zidan liburuarekin etorri zitzaidanean! Datuen biltzaile amorratua da gizona, eta berak jakinarazi zigun markarena. Nonbait, Jose Ignacio Garmendia *Xapo* da minutu gehien jokatu dituenena, baina ni aurretik noa pilatutako denboraldiei begira".

Atzera begira jartzeko aukera eman dio omenaldiak eta liburuak. "Zumeako eta Etxeberrietako zelaia ezagututakoa naiz. Aldea dago orduko eta oraingo zelaian artean! Iraganen, zelaian baldintza aldrebesetara egokitu, eta garrantzi gehiago ematen zitzaion indarrari. Gaur egun, ordea, teknika behar duzu eduki. Asko irabazi da alde horretatik. Begira diezaiogun Euskaldunari: erditik aurrera denak dira moxtakak, baina bai bixiak eta abilak baloiarekin!". Instalakuntzen aldetik ere izugarri aldatu dela dio: "Etxeberrietako aldagelak, adibidez, sabaia eta hormak erortzeko zorian egoten ziren eta hodi zahar batetik irtezen ziren hiruzpalau ur tanteskin dutxatu beharra zegoen han! Euskalduna taldea ere harrigarria da nola hazi den elkarte bezala eta zenbat talde dituen (neskenak barne)".

33 urteren ondoren futbola zergatik utzi duen galdetuta, argi dauka erantzuna: "gorputzaldiari begiratzuz gero, denboraldi berri bat egin nezakeen; baina motibazioa, gogoia, jaisten hasi zitzaidan. Argi neukan taldean segitzekotan erabat inplikatu beharra neukala taldearen ibil-



Ander Lopez Euskaldunako jokalaria berriki omendu dute.

bidean; ezin niela taldeko kideei exijitu, eta gero zerorri ez izan kapaz predikatutakoa betetzeko. Egia esan, azken urtetan, taldeko bi zaharrenei egokitu zaigu pittin bat eredugarri izatea, jokabideetan noraino bai eta noraino ez markatzea". Urtetan aurrera, "bizitzako beste zenbait aspektu gehiago baloratzen hasten dela bat ohartu da Ander Lopez: "hasierako urteetan, partida galduz gero, ez zen giro izaten nirekin! Ingurukoek zenbat haserreak jasan behar izaten dituzten... Pasa ziren garai horiek, eta azken aldian, izugarri estimatzen dut asteburuak libre edukitzea, eta neska-lagunarekin, familiarekin edo adiskideekin egoteko denbora edukitzea...".

Hainbeste urtetan iraun ahal izateko errezeta magikorik ez dauka Anderrek. "Futbolarako gogo bizia eta diziplina edukitzeaz gain, gustura ibili behar duzu talde giroan, jai duzu bestela. Etxetik lanera, eta lanetik etxera eta sofán etzan, bizimodu horrekin ez bazaude konforme, oso ondo dator kizu kirol jarduerara bat, taldekoa batik bat, nahiz eta neguan bost gradutan eta euritan aritu behar. Oroitzapen sakonetan murgilduta, bi aldiz bizitu izan ditu maila jaitsierak, "horiek dira garrantzenak, batez ere denboraldi osoan agonian zabiltzalako burua altxa ezinik". Nolanahi ere, unerik atseginenak gogoratu nahi lituzke: "bi igoera kirol mailan, eta maila pertsonalagoan, egin ditudan adiskideak eta horiekin sortuta-

ko aldarte onak eta barre algarak".

Etorkizunean, ez du baztertzeten entrenatzaile izatea: "Pozik ibiliko nintzateke gaztetxoei erakusten. Ezagutu izan ditut jokalaria izan ondoren gu entrenatzeko prestatu direnak, musutruk eta egundoko faborea eginenez. Zorretan gara eta jarraipena eman behar genioke transmisio horri. Gertatzen da denbora eduki behar dela; dedikazio handia eskatzen du, eta ezinezkoa egiten zait gaur egun, arratsaldean nahiko berandua ateratzen bainaiz lantokitik".

EUSKALDUNA, IGOZKEKO ATARIAN

Biziki ari da jarraitzen taldekide ohien ibilbide emankorra aurtengoa. Ziur da Euskaldunak zuzenean lortuko duela mailaz igoetzeko txartela, asteburu honetan Pasaian jokatu behar duen azken partidari. "Nahikoa du berdinketarekin, baina irabazlearen mentalitatearekin joan behar du, espekulazioak eta azpijokoen susmoak alde batera utzita. Pasaia joateko asmoa daukat, eurekin eta jarraitzaileekin ospatzeko garaipena".

Harreman estua mantentzen du taldekide ohiekin, eta horren adierazgarri dira eginda dauzkan apustuak: "15 golera iristen zenari afaria ordainduko niola agindu nien, eta batek jada irabazia dauka. Bi atezainekin, berriaz, honako desafioa egin nuen: baietaz 30 gol irentsi! 28 daramate, baina nahiago nuke horretan geratuko balira, nahiz apustua galdu! Igo diren seinale!".

Andoni Alvarez omenaldia aurtengo Kirol Astean



Kirol Astearen baitan aurtengo omenaldia jasoko duena Andoni Alvarez Gazteleku pilota eskolako izango da. Horrela erabaki zuen Allurralde kirol patronatuak, eta aste honetan eman dute erabakiaren berri.

Eskuzko pilota eragilea da Andoni, herriartekoan edota pilota eskolan ardura nagusienak dituenak. Beraketa bere taldeak urte hauetan mutil eta nesken artean pilota sustatzeko lan handia egin dute. Zorionak!

Hiru urnietar saskibaloian txapeldun



Aurreko asteburuan Gipuzkoako junior mailako liga txapelketa amaitu zen, eta bertan Hernani txiki taldea izan zen irabazlea. Bertan hiru Urnietarrek jokatzeko dute: Robert Alcantara (11), Mikel Iraola (8) eta Xabi Pagola (12). Herrian aukerarik ez eta gustoko duten kirol-

la egiteko Hernaniko taldean parte hartuz egundoko garaipena lortu dute. Txapelaz gain, datorren urtean errendimendu mailan jokatzeko aukera izango dute. Zorionak Urnietako hiru jokalariei eta bere taldekide eta jarraitzaile guztiei.

Mendi irteera Mulliskora

Zanpatuz Urnietako taldeak irteera berria antolatu du maiatzaren 23rako. Besabitik irten eta familia giroan Mulliskora joango dira. Izena emateko epa datorren astelehenean amaituko da. Maiatzaren 18an, zehazki.

Irteeraren kostua hiru eurokoa izango da eta hamaiketako elkarteak berak eskainiko die parte hartzaile guztiei.

Haur txikien kasuan, haurrak arduradun batekin joan beharko du.

Ganbarak zail du igoera

Asteburuko emaitzak:

Ganbara SenM 62-65 Ordizia

Igoera eskuratzeko azken aukera.

Askatuak 52-48 Ganbara KadM

Ganbara InfM 39-12 Easo

Datorren jardunaldia

Andraitz-Ganbara SenM

Maiatzak 15, ost. 19:00. Legazpi.

Ganbara KadM-Añorga

Maiatzak 16, lar. 12:15. Andoain.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasá, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 14TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “El maestro del agua”.
Larunbata, 16: 19:30, 22:00.
Igandea, 17: 19:30.
Astel lehena, 18: 19:30, 22:00.
- “Asterix”.
Maiatzak 10 eta 11. 17:00.
- Hurrengo asteetan:
“La familia Belier”, “Suite francesa”.

Urnietan, Sarobe

- “Samba”.
Maiatzak 15, ostirala. 22:00.
Maiatzak 17, igandea. 18:30.

Matrikula

Andoain

- **Galardi haur eskola.**
Maiatzaren 25etik aurrera.
- **Udal musika eskola,** matrikulazio kanpaina ikasle berrientzat:
Azken egunak.
10:00-13:00 / 16:30-19:30.
Maiatzak 14 eta 15.

Urnietan

- **Udal musika eskola,** matrikulazio kanpaina ikasle berrientzat.
Maiatzaren 22ra arte.

Aisialdia

Andoain

- **Goazen Jolastera 2015,** udaleku irekiak. 2007-2012 bitarteko haurrei zuzenduta. Bi txanda:
Ekainaren 29tik uztailaren 17ra.
Uztailaren 20tik 30era.
Izena emateko epea:
Maiatzak 18-29.

Pailazoak

Urnietan

- **Pirritx, Porrotx eta Marimototsen** ikuskizun berriena, Iñistorraren eskutik.
17:30. Egape ikastolako jolas toki estalia.
Sarrerak salgai: 7 euro.
Ekainak 3, asteazkena.

Antzerkia

Andoain

- “**Ligeros de equipaje, crónica de la retirada**”. 1939an ia milioi erdi pertsonak gurtzatu zuten Frantziako mugira Pirinioetan barrena. Gizakion alde onenari eta txarrenari buruzko antzezlan da.
21:30. Bastero. 12 euro.
Maiatzak 15, ostirala.

San Isidro

Urnietan

- **Baserritarren omenez.**
11:00 Meza. 11:45 Hamaitakoa. 12:15 Bertso-saioa. 14:00 Bazkaria.
Maiatzak 15, ostirala.

Andoain

- Meza eta bazkaria. Goiburu auzoan. 11:00etatik aurrera

Musika

Andoain

- Post rocka, hardcorea eta Noise inprobisazio doinuak: Eten, Sacco eta Diana Lagarto.
22:30. Gaztetxea.
Maiatzak 15, ostirala.

Tailerra

Andoain

- Gartxot Arregik zuzenduta, postal tailerraren edizio berria. Izen-ematea:
maiatzaren 28ra arte.
10:30-13:30, 18:00- 20:30.
Maiatzak 30, larunbata.

Jaiak

Urnietan

- Gazte festak maiatzaren 29tik 31ra. Hitzordu ugari asteburu osoan zehar.
19:00 Buruhandi eta erraldioen kalejira.
20:00 Txupinazoa eta ondoren Egape Dantza taldekoen emanaldia.
Gauean Koadrilen afaria eta kontzertua.
Maiatzak 29, ostirala.

Ibilaldiak

Andoain

- Mendeurrenaren harira, Andoaingo historian zehar eraiki izan diren eraikuntzetara bisita gidatuak.
Maiatzak 16, larunbata
Euskaraz:
18:00 Buruntzako San Martingo aztarnategia.
19:00 Goikoplaza, Udaltexea, eliza.
19:45 Karmentxoenea edo Enekorena.
Gazteleraz:
17:30 Berrozpe.
18:15 Sagarmendi.
19:15 Izturitzaga jauregia.
20:00 Jauregi eta Santa Krutz eliza.
Maiatzak 17, igandea
Gazteleraz:
11:00 Buruntzako San Martingo aztarnategia.
12:00 Goikoplaza, Udaltexea, eliza.
13:00 Karmentxoenea edo Enekorena.
Euskaraz:
10:30 Berrozpe.
11:15 Sagarmendi.
12:15 Izturitzaga jauregia.
13:00 Jauregi eta Santa Krutz eliza.
■ Gure herriko beste irudia ezagutzeko, mendi ibilaldia Goiburuko plazatik abiatuta. Autobus zerbitzua Zumeatarratik Goiburura.
Irteera: 09:30, Goiburu
Maiatzak 31, igandea.


Deialdiak

Andoain

- **Leyçaur** ikerketa lanaren oinarriak onartu dituzte. Udaleko webgunean ikus daitezke. Egitasmoak aurkezteko epea:
Maiatzak 15, ostirala.
- **Imersok** bidaietarako izena emateko epea zabalik du, ekainaren 5a arte. Gizarte Zerbitzuetako sarreran inprimakiak eskuragarri daude.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Unaxek 2 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Zorionak eta muxu pila. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Maiatzaren 24an urte bat beteko du **Iera** gure etxeko sorgiñak, muxu potolo bat etxeko guztien partetik!

URNIETA

ZORIONAK



Maiatzaren 7an Paul jaio zen. Ongi etorria! Maiatzaren 14an Angelek urteak beteko ditu. Maite zaitugu!

URNIETA

Galardi haur eskola

Ikasturte berrian izena ematea zabalik dago. Irailetik abendu bitartean hasteko; 0-1 eta 1-2 taldeetarako. Matrikulatzeko epea maiatzaren 25etik ekainaren 5era izango da, biak barne. Izen ematea: Bastero, 943 303 540.

Ordutegia: 10:00-13:00, 16:30-19:30.
Haur Eskola ikusteko egunka: maiatzak 25 eta ekainak 1, 16:30etatik 18:30etara.

Galardi haur eskola
Extremadura kalea, 6
943 300 655.

Hauteskunde kanpaina, hitzorduak Andoain

EH Bildu

- Herritarrekin solasean, hitzorduak:
Deialdi irekia:
19:00 Bastero.
Maiatza 19, asteartea.
Eragile sozialak:
19:00 Ambrosia Olabide.
Maiatzak 20, asteazkena.
- Ekitaldi nagusia
Herri bazkaria:
14:00 Goikoplaza.
Ekitaldi nagusia, Xabier Olano Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagai nagusiaren parte hartzearekin:
18:00 Goikoplaza.
Maiatzak 16, larunbata.
- Kanpaina itxiera
Sardin jatea:
19:00 Espigoia
Maiatzak 22, ostirala.

PSE-EE

- Kanpainako hitzorduak:
12:00 Arrosa banaketa merkatu plazan.
21:30 Sozialisten egoitzan mahai-ingurua eta afaria.
Maiatzak 16, larunbata.
12:00 Arrosa banaketa merkatu plazan.
Maiatzak 19, asteartea.

EAJ-PNV

- Postu finkoak ipiniko dituzte datozen egunetan.
17:00-19:30 Zumea kalean, Guipuzcoano parean:
Maiatzak 14, osteguna.
17:00-19:30 Goikoplazan:
Maiatzak 19, asteartea.

PP

- Programaren aurkezpena:
10:30. Bastero.
Maiatzak 15, ostirala.

IRABAZI ANDOAIN

- Programaren aurkezpena:
19:00 Ondarreta.
Maiatzak 14, osteguna.
- Ekitaldi politikoa:
10:30 Goikoplaza.
Maiatzak 19, asteartea.
- Ekitaldi politikoa:
19:00 Bastero.
Maiatzak 20, asteazkena.

GANEMOS ANDOAIN

- Programa banatuko dute merkatu egunetan, eta beste zenbait egunetan ere.

Udal hauteskundeak:
Maiatzak 24, igandea.